


...eta  
**Kitto!**

GEURE GAIA: Eibarko enpresak Makina-Erremintaren Bienalean • GAZTEKITTO: Eibarko Aste Haundixaren bila • DANON AHOTAN: Dena prest domekako hauteskudedei begira • FIRIN FARAN: Sostoaren kontzertua Karmelitetan • ELKARRIZKETA: Baquéko lehiaketako irabazleak • ERREPORTAJEA: Emakume Langileen Nazioarteko Eguna

**630 zkia. EIBARKO ASTEKARIA 2008-III-7**



# Arakistain-Jaio gidari bikote indartsua



*tribus*

estazio, 12

street wear clothing



eusko  
alkartasuna

herriarenahotsa

[euskoalkartasuna.org](http://euskoalkartasuna.org)





Euskara Elkartea

**ARGITARATZAILEA:**

...eta kitto! Euskara Elkartea

**HELBIDEA:**

Urkizu, 11 - solairuartea  
20600 Eibar

**TELEFONOAK:**

943 20 67 76 / 943 20 09 18

**FAXA:**

943 20 28 72

**Astekariaren E-MAILak:**

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

**Elkartearen E-MAILak:**

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**

Itziar Albizu

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

Ekhi Belar

**ADMINISTRAZIOA:**

Marisol Uriarte

**KOORDINATZAILEA:**

Koldo Mitxelena

**ERREDAKZIO-BURUA:**

Silbia Hernandez

**DISEINUA ETA MAKETAZIOA:**

Jose Luis Gorostegi

**ARGAZKI ARLOA:**

Leire Iturbe, Silbia Hernandez

eta Ekhi Belar.

**HIZKUNTZA ARDURA:**

Juan Andres Argoitia

Maidar Aranberri

**PUBLIZITATEA:**

Itziar Albizu

Belen Ulazia

**Tfnoa:** 943 20 67 76

**AZALEKO ARGAZKIA:**

Borja Agirregomezkorta

**BANAKETA-ARDURADUNA:**

Ihintza Fernandez

**TIRADA:**

7.950 ale

**INPRIMATEGIA:**

GERTU koop. (Oñati)

**COPYRIGHT-A:**

...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA:**

SS/430/92

ISSN:

1132 - 1679

*("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)*

Sail honen helburua ez da euskera irakastea, ezta hiztegi bat egitea ere. Gure gurasoek eta haien gurasoek erabiltzen zuten euskera gogora ekartzea eta berreskuratzea da asmoa. Gaur egunean euskerak esparru guztiak hartu ditu eta gaur egun baino euskaldun gehiago ez da inoiz egon; baina, hala ere, oraindik euskera ez da erabateko komunikazio-tresna: hainbat gauza esatea kostatu egiten zaigu, ez dugu gazteleran bezalako erraztasunik eta trebetasunik. Sail honetan euskeraren alde adierazkorra landu nahi dugu, euskerak berez daukan gatzeta eta berakatzatza berreskuratu. Horretarako aurreko belaunaldietara jo dugu, gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera jatorraren berri jasotzeko.

**DROGA.-** Liskarra, eztabaida gogorra, burruka. "Bere bizi guztian droga ta abarra baiño ez eban erabilli".

**DROGA ATARA.-** Istiluak sortu. "Jokuan galdu bihar ebalak konturatzen zanian, droga ataritzen eban".

**DROGA EGIN.-** Jokuan tranpak egin. "Droga egin puruan irabazi zetsazen diru guztiak".

**DROGOSO.-** Drogan ibiltzen dena. "Drogosua zan eskolan, eta bardiñ izan da gero bere bizi guztian".

## IRAKURLEA PROTAGONISTA eskutitzak

**OHARRA:**

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxienez baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia derrigorrezkoa zaigu. Neurriari dagokionez, ez da 20 edo 25 lerrotik gorako testurik kaleratuko. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero. Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik. Aipatutako baldintzok bete ezean, erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabaki lezake. Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak korreoz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mailez: erredakzioa@etakitto.com

ERREDAKZIOA


## asteko esaldiak HEMEROTEKA

"Idazleak egin itzazu, eta irakurleak izango dituzu, idazte-tik sortzen baita irakurzaletasuna. Gainera, irakurtzen ez dakiten hauren erantzule da eskola, hori bai, baina ez irakurtzen jakinda irakurri nahi ez dutenena. Bestalde, irakurtzeak ez gaitu etikoago edo sortzaileago bilakatzen"


**(Victor Moreno, idazlea eta irakaslea)**

"Kanpaina honetako kazetari gehienak makurtu dira politikariet esandakoaren bozgorailu soil izatera. Inor gutxi ikusi dugu 'zergatik diozu hori' edo 'seguru zaude diozunaz' bezalako galdera xalo lañoak egiten. Telebistako debatean ere eskoba-kirtenarena egin clute bi kazetari ustez handiak"

**(Anjel Lertxundi, idazlea)**



EIBARKO UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA (HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria



2008, urte zaila

**E**derra tokatu zaigu urte hasiera, datu ekonomikoek zein burtsa merkatuetakoek berri kaskarrak besterik ez baitigute ekarri, gure poltsikoei benetako kaltea egiten dietenak.

Alde batetik, guztiaren edo ia guztiaren (lehengaiak, karburanteak, elikagaiak...) prezioen igoerak daude, gehienbat Txinatik eta Indiatik datorren demanda handiak sortutakoak; horrek prezioak izugarri igotzea ekarri du eta, horrez gain, gure erosteko ahalmena gutxitzea eta, beraz, gero eta pobrea-goa bihurtu garena.

Bestalde, interes tipoen igoerak hilerdo ordaindu beharreko hipoteken kuotak asko igotzea ekarri dute; us-te dugu igoera hauek geldituzkotan daudela eta, horrez gain, hemendik gutxira interesen jaitsiera emango dela aurreratzeko moduan gaude, familia askoren egoera leuntzeko balioko duena.

Eta, zer esan dezakegu burtsaz, 2008an bakarrik lbex35 %10etik gora jatsi bada? EEBBetan arrisku handiko hipoteken ("subprime") krisiak eraginda, horrek munduko banku handien onurak nabarmen jaistea ekarri du. Horrekin batera, ekonomiaren atzeraldia etorri daitekeela eta dagoen beldurrak munduko burtsetan izan diren erorketak ekarri ditu. Seguraski berandu izango da saltzeko eta goizegi erosteko, baina hasi gara ikusten prezio interesgarri batzuk hainbat akzioetan. Egoera lasaitzen denean, akzioak prezio onean erosteko aukera politak izango dira.

Baina guztiak ezin dira berri txarrak izan: bankuak dirua edozein prezioetan eskuratzeko gerran sartu direnean, orain da uea aprobetxatzeko, hortik aspalditik ikusten ez ziren errentagarritasunak ateratzeko aukera ematen dute eta banku depositoei.

**Tomas Etxaluze**

(EUKIKO HNANZA  
AHOLKULARIA)

## Errebal merkataritza-zentruko lerrokadura eta altuerak onartuta

**E**rrebalgo merkataritza-gune berriak merkatu-plaza zaharrak baino azalera handiagoa izango du eta lursail handiagoa okupatuko du. Horrela erabaki zen otsailaren 25ean egin zen Udaleko osoko bilkuran, bertan erabaki baitziren Errebalgo zentruko lerrokadura eta altuerak. Hala ere, eraikuntza berriaren altuera lehengoa baino 3 metro txikiagoa izango da.

Udaleko osoko bilkuran onartutako azterketak dioten bezala, eraikiko den edifizioa Muzategiko paretera atxikitu eta Errebaleraino ailegatuko da. Errebalgo beheko solairuan estalitako espaloi bat egingo da eta Coliseoaren aurrean 600 metro karratuko plaza estali bat sortuko dute, merkataritza-gune-ko sarrera izango dena.

Datozen egunotan obra-hondakinak garbitzeko lanak amaitzea aurreikusten dute eta, horiek amaituta, urbanizazio eta zulaketa lanekin hasiko dira. Aurreikusitako epeak be-



tez gero, udan hasiko dira eraikina altxatzen. Value Investment zentruaren kudeatzailearen arabera, 2009. urterako zabaltzeko moduan izango dira.

### Ezker Batukoak arduratuta

Ezker Batuko ordezkariak, hainbat iritzi jaso eta gero, idatzia helarazi die hedabideei Eibarko PSOEk 2003ko hauteskundeetan aurkeztu zuen proposamenaren eta gauzatuko denaren artean dauden aldeak salatzen: "Orain gauzatuko den proiektuak PSOEk bere hauteskunde programan aur-

keztutako plaza irekia estaltzen du, espaloi inbadituz".

Horrez gain, "Errebalgo udal-lursaila 'Eibar Boulevard' taldearen eskuetara pasatu izana" gogor kritikatzan dute: "Bota berri den merkatuaren aurretik han zegoen agustinen komentuarik egindako kontsezioa erabilera publikorako zen, eta ez Eibar Boulevard taldeak etorkizunean egingo duen erabilerrako". Horrela, "botoretatik datorren legitimitateak aurretik hitzartutakoa betetzeko bakarrik balio duela", gogoraz nahi izan dute.

## Dena prest domekako hauteskundeetarako

**M**adrilgo Kongresu eta Senaturako ordezkariak aukeratzeko hauteskundeak izango dira domekan eta, ohikoa denez, ...eta kittol-ko lantaldeak jarraipen berezia



AMAIJA JAIO

egingo die: goizetik hasiko gara lanean, hauteskundeetan parte hartuko duten alderdietako ordezkarien erreakzioak jasotzen botoa ematera doazenean. Behin mahaiak itxita, datu guztiak pilatuko ditugu, astelehen goizean kioskoetan egunkariekin batera banatuko den doako ale berezian horien berri emateko. Aurten, gainera, internet bitartez domekan bertan hauteskondeei jarraipena egiteko aukera eskainiko dugu gure webgunean ([www.etakitto.com](http://www.etakitto.com)): eguerdi parterako ordezkari politikoek goizean esandakoak irakurtzeko moduan izango dira eta gauean, berriz, datu guztiak jaso eta prozesatu ondoren, webgunean sartzen diren guztien eskura ipiniko ditugu.

## 'Elkartasunaren astea' La Sallen

**L**a Salle ikastetxea 'Elkartasunaren astea' ospatzen ari da martxoaren 3tik 14ra. Ekimen honen bitartez Proega GKEk Bolivian dituen proiektuetan laguntza eskaini nahi da. Hamaita egun hauetan hainbat ekintza ezberdin egingo dira La Salleko zentru bietan, bai Isasin, bai Azitainen.

'Elkartasunaren aste' honek ekintza nagusi bi izango ditu: bata, martxoaren 13an egingo da Isasin eta, bestea, hilaren 14an Azitainen. Azken ekintza honetan hainbat joko solidario egingo dira aurretik kanpoko zorra, merkataritza zuzena, errefuxiatu, etorkin eta giza-eskubideen gainean egindako lanak kontuan hartuta.

## autuan

### ARALAR ETA MOZIOA

Aurreko asteko alean, 4. orrian Mariasun Gartzia Aralarreko zinegotzi berriari buruzko berrian, ezker abertzaleak aurkeztutako mozioaren inguruko informazioan okerra egin genuen. Mozioari baiezko botoa bakarrik Aralarrek eman zion (ez EB-Aralarrek, guk txarto ipini genuen moduan) eta azalpen honi jarraituta eman zion baiezko botoa bigarren puntuari: "Aurkeztutako mozioaren bigarren puntuarekin guztiz ados ez izan arren, larriagoa iruditzen zaigu Espainiako estatuak daraman urraketa sistemati-koa, pertsona, alderdi politiko eta Euskal Herri guztiaren kontra".

### AFAGI-REN TAILERRA

Alzheimerdun gaixoarekiko komunikazioa lantzeko tailerra antolatu du Afagi elkarteak martxorako. Hi-

lero egiten diren tailerretan gaixotasun horren inguruko gai monografikoak lantzen dira, gaixoen senitartekoei laguntza emateko asmoarekin. Sarrera doan da, baina alde aurretik izena ematea eskatzen da, antolaketa kontuak errazteko. Eibarren martxoaren 13an, eguenean, egingo da tailerra, 16.00etatik aurrera. Informazioa eskatzeko edo izena emateko 943297118 telefono zenbakira deitu daiteke.

### 200.000 EURO SANJUANETARAKO

Orain urte biko aurrekontuarekin alderatuta, %33 igoko dute aurtengo sanjuanetarako aurrekontua (150.000 eurotik 200.000 eurora). Aurrekontua programaren hiru atal ordaintzeko erabiliko da: ohiko ekitaldiak, kontzertuak eta kalean egiten diren ikuskizunak eta Eibarko hainbat taldek antolatu ohi dituztenak.



### Txarri garbixak Eibarren!

**H**olakuak gara bai, nahiz-ta harrigarria iritxi. Gure etxia eta gure ingurua garbitzen denbora dexente egitten dogu baina, bittartian, bestiena zikintzen badogu, ez da ezebez pasatzen. Balkoia garbitzen badihardugu eta jasotako zikinkerixia balkoittik behera bota ezker, zeregin bat gitxiago: ez dogu zaka-rrontzira jua biharrik. Eskobiak jasotzen dittuan hauts-bolak, uliak eta bestelakuak norberan sukaldian garbittu biharrian, leihua zabaldu eta aor.... dana kalera. Txarri-xak gara eta aldi berian garbixak, txarri garbixak. Norberana ez dana hor konpon marianton. Eta kitto! Gurian badago, bai, holakorik. Balkoia egunero garbittu, lorak ureztatu eta astelehen buru zurixan amantal dotoria jazten dabenik. Baiña nora jauten ete dira balkoi horretako zikinkerixak? Erdixak kalera eta beste erdixak inoren balkoira. Aurretik garbittu bada izorrai! Beste era bateko artista-txarri-garbirik be ez da falta izaten. Holakuak ez dabe balkoirik bihar izaten hiru edo lau lorontzitan jeranixo dotoriak eukitzeko. Hori bai, kontuz leiho horren azpittik pasatzerakuan, ur-txorrotadia, lore-mutxikiñak eta hosto apurrak buru gainera jausiko jatzuz-eta. Mankomunidadiak kontratautako bihargiñak ez dira horraittio zeregin barik geldittuko. Beti egongo da zer garbittu eta ez gero kulparik bota udabarriko polemari. Eibarko leiho eta balkoietan gertatzen dana ikusi besterik ez dago!

**Ana Aranberri**  
(KAZETARIA)

## Ezker Batukoak Teknikerren bisitan

**T**ekniker-IK4k bere Gizarte-Teknologiako Unitatea aurkeztu zien aurreko astean Fernando Consuegra Eusko Jaur-laritzako Gizarte Gaie-tako Sailburuordeari, eta Ezker Batuko Ant-ton Karrera, Isabel Lopez Aulestia eta Eli Gomezi. Horrela, kar-gu politiko hauek, Teknikerrek gizartearen zerbitzura jartzeko asmoarekin egin dituzten aurrerapen teknologikoak ikusteko aukera izan zuten.



**Aurrerapen teknologikoak izan ziren protagonista Ezker Batuak-eko ordezkariak egindako bisitan.**

## Etxe-ospitaleratze zerbitzua maiatzetik aurrera

**D**ebabarrenerako etxe-ospitaleratze zerbitzua ezarriko du Mendaroko Ospitalak maiatzetik aurrera. Neurri horrekin, ospitaleko arduradunek gaur egun Mendaron duten ohe-faltari aurre egin nahi diote. Orain arte Donostian bakarrik eskaini da zerbitzu mota hau eta

zerbitzua martxan ipintzearekin batera ospitalean arreta hobea emateko aukera izango dutela uste dute. Dena dela, etxe-ospitaleratzea ezin izango da kasu guztietara aplikatu eta medikuak erabaki beharko du noiz aplikatu, gaixotasunaren larritasunari begiraturata.

Mendaroko ospitala txiki geratu dela onartu behar izan dute, azken urteotan behin baino gehiagotan gainezka egin eta gaixoak beste erietxe batzuetara bidali behar izan dituzte-eta, Mendaron denentzat tokirik ez zutelako. Ospitaleratze zerbitzu berria martxan ipintzeaz gain, Mendaroko erietxea handituko dute: urte biko epean eraikuntza berri bat sortuko dute dagoenaren alboan. Gaur egun, Mendaroko ospitala EAEko osasun sareko gazteena da, 116 ohe ditu eta 26 espezialitate eskaintzen dituzte bertan.



ORAIN DELA

10 urte

1998-III-13  
228. ZKIA.

Azpitaino autopistako peajia itxi zeben Gazte Asanbleak.



850 lagun Juan ziran "Magnolias de acero" jardunaldietako lana ikustera.

- Canal Rodriguez PSE-EEko Eibarko semearenak estamasiatik ikerbako komisioa osatzeko estakaria esan zuten Semaduan Roberto Sampadro hitzartuaren gaina berrituko be pildipilliam ipini zala aprobetxatuko.
- Udaltzaria berritatzeko zain zezala-eta, Kantuzeko best etxean errepasu historikoa esan zeduan rebitziam. XVII. mendiam esan ziran bi, 3a 1751iam, 4a 1800iam eta gaur egungoa (berrituta badan be) 1900iam.
- Debaldako Gazte Asanbleak Eibar-Gasteiz autbidia eraikitziaren kontrako ekitaldia esan zeban, Azpitaino autopistako peajia itxi. Aldi beriam, Bilbao Etxebian peajia leuatiaren kontra agertu ziran.
- Patxi Mutileak orduan sartu berriko Aspa pelota enpresako zarentia zedatatu zeban. Ondurako lan bera zitar duen esitiam Alfa-Arte enpresan eta Eibar PT-ko zarentari taldeko ordezkarik mediam ibilli zan.



## Eibarko armaginak Madrilera

**G**aur hasi eta domekara arte Eibarko armaginen ordezkaritza zabalak hartuko du parte Madrilan egingo den Venatoria-Fitac azokan. Sektoreko azoka garrantzitsuenean Agirre y Aranzabal, Grulla, Garbi, Arrizabalaga, Arrieta eta Kemen etxeen eskopeta-finak ikusteko aukera

izango dute bisitariak, gure herrian egiten diren beste hainbat armarekin batera. Norica eta Laurona ere han izango dira eta, horrez gain, Eibarko Udalak Armagintza Museoaren berri emateko aprobetxatuko du hitzordua. Denera 200 bat saltzailer hartuko du parte asteburu honetako azokan.



UNAI ARTEIXE

## Pertsona ezinduen zaintzarako ikastaroa

**D**ebemen elkarteak, Itsas-mendikoirekin elkarlanean, landa eremuan menpekotasunen bat dutenak zaintzen jarduten duten emakumeak trebatzeko ikastaroa antolatu du. Ikastaroa apirilaren 1ean hasiko da eta 60 orduko iraupena du.

Ikastaro honetan adituen oina-

rizko zaintza eta zaintza espezi-fikoa, higijena, mugikortasuna, elikadura, zaintzaile diren emakumeen arreta sozial eta psikologikoa, eta beste hainbat alor jorratuko dira. Hau dena landa Ermuko emakumeei zuzenduta.

Ikastaroko klaseak Debemen elkartearen Elgoibarko lokalean eta Eibarko merkatu plazan emango dira, martitzen eta eguenetan, 16.00etatik 19.00etara. Ikastaroaren prezioa 40 eurokoa da eta interesatuek Debemen elkartera deitu beharko dute (943722067) martxoaren 27a baino lehen.



## Birziklatzeko olioia Rialto eta Untzagan

**E**txean erabilitako olioia birziklatzeko zerbitzua aurrerantzean Rialto inguruan eta Untzagan eskainiko dute, Errebalen egiten diharduten lanak direla-eta han inguruan zerbitzua hori eskaintzeko toki egokirik ez dagoelako. Horrela, Rialto parean hil bakoitzeko lehenengo eguaztenean jasoko dute olioia eta Untzagan, berriz, hileko bi-

garren eguaztenean, kasu bietan 09.00etatik 13.00etara.

Olioaz gain, birziklatzeko beste hainbat gai lagatzeko aukera izango da. Horrela, etxetresna elektronikoa, erradiografiak, telefonoak, bateriak eta pilak, bonbilak, fluoreszenteak, ordenagailuak, disketeak, tonerak eta gailu informatikoak birziklatzeko aukera egongo da.



Zaintza paliatiboko talde multidisziplinario batek, gaixuan gaitzak osatzeko tratamendurik ez dakanian, gaixo eta famelixiari eskaintzen detsen zaintza aktibo eta orokorra da. Hori da Osasunerako Mundu-Erakundeak (OME) zaintza paliatibuari emoten detsan definiziñua. Zaintza paliatibuen helburua gaixua ahalik eta bizi kalitate onenarekin egotia da, beraren gaixotasunak lagatzen detsan denboria ahalik eta aktibuen bizitzen lagatzen. Medikuntza

tradizionalari begira aldaketia ekarri dau guzti horrek, helburu nagusiña beti izan dalako gaixua sendatzia. Halanda be, neurri honek hartzeko, egintza medikuan bost baldintza emon bihar dira: lehelengo, heriotza hurbil dakan gaixo bati ematen jakoz holako zaintzak eta ahalik eta azkarren eman bihar jakoz; bigarrenik, zaintza hau ez da gaixotasunaren aurrian jarrera pasibo bat hartzia, zaintza honek jarraipen iraunkor bat dakalako; hirugarren ataliam famelixia dago, beran garrantzia haundixa dalako; laugarrenik, neurriak ezberdiñak izango dira kasu bakoxtian; eta azkenik, etikia, medikuntzako arlo gitxittan diralako hain garrantzitsuak autonomia, ongiegittia, ez kaltegittia eta justizixan oiñarrirak.



### Ronald Rodríguez 24 urte, ikaslia

Neri begittantzen jata gaixo daganak hartu bihar dabela erabagixa, eurak diralako hiltzera doiazenak. Holan, ez dot uste kanpoko batek erabaki hori hartu bihar dabenik. Halanda be, gaixuak ez badaka erabakitzeke gaittasunik, kanpokuak, famelixakuak eta abar, hartu biharko leukie erabagixa.



### Elena Renero 56 urte, etzekoandria

Oso gai polemikua da hori, oso gatxa erantzutekua. Ezin dot horri buruz eritzi bat emon, egoera bakoxta oso ezberdiña da bestiarekiko, holan ezin dot eritzi konkretu bat emon. Kasu batzuetan ondo ikusiko neban sedatzia eta beste batzutan, igual, erabakixa asko pentsatu barik hartzen da.



### Carmen Ugarteburu 53 urte, teknikua

Nik injekziñua emongo netsen eta kitto, gaixuak hiltzerakuan iñungo sufrimendurik ez eukitzeke. Gaixuak erabakitzeke gaittasuna badaka berak erabaki biharko zeban, baiña bestela famelixiak. Halanda be, hor 'landare bat edukitzeke, hobe sufridu barik hiltzia.



### Jose Alberto García 44 urte, bihargiña

Hori erlatibua da, gaixan gehixago sakondu biharko zan holako zoezer erabaki edo esan ahal izateke. Argi badago gaixua hiltzera doiala, argi dakat ez dotela nahi berak sufritzia, begittantzen jatalako iñork ez dabela nahi beran famelixako batek sufritzia. Baiña bueno, kasu bakoxta ikusi biharko zan.

## Zaintza paliatibuetan dagozenak sedatziaren alde zagoz?

**Herri Irratia Eibar**

Loyola Media

90.7 Fm

Herri Irratia Donostia	94.8 Fm
Herri Irratia Leioa	99.8 Fm
Herri Irratia Eibar	90.7 Fm
Loyola Media Bilbao	93.5 Fm
Radio Álava	98.0 Fm

**Herri Irratia-Loyola Mediak**

kazetariek eta komertzialak behar ditu Eibarko bere emisoran lan egiteko. Comisakunak endorango helbidera bidal daitezke:

Programazio berria:  
Herri Irratia-Loyola Media  
garibal 19 20004 Donostia

e-mail: [comisakun@herri-irratia.com](mailto:comisakun@herri-irratia.com)

# Zaintzaileen figura, Emakume Langileen Nazioarteko Egunaren ardatz

*Bihar mundu mailan gogoratuko da emakume langilea, XX. mende hasierako gertakari zorigaitzokoa gogoan: Nueva Yorkeko fabriketan josten lan egiten zuten emakume asko greban jarri ziren 1908an, gizonezko beharginek zituzten eskubide berak eurentzat aldarrikatzen. Baina greba modu ezin okerragoan amaitu zen, fabrikako ugazabak lantegiari sua eman eta 'Cotton Textile Factory' barruan zeuden 129 emakume han hil ziren-eta. Askoren ustez gertakari horretan bilatu behar dugu biharko eguna gogoratzearen arrazoia. Hala ere, historialari guztiak ez dira horretan ados ipintzen. Edozein kasutan, argi dago XX. mende hasierako emakumeen mugimendu sozialistaren inguruan jaio zela emakume langileak mundu mailan gogoratzeko eguna.*



**L**angile edo behargin moduko berbak erabiltzen ditugunean, etxetik kanpo eta soldata baten truke egiten diren lanak datozkigu automatikoki burura sarritan. Emakume askok urteak daramatzate etxe barruko lanaren truke soldata eskatzen, baina orain arte behintzat euren eskaerak ez du arrakasta handirik lortu. Ordaindutakoa izan ala ez, etxe barruan egingdakoa lana ez denik zalantzan ipintzea zaila da: umeak ikastera eraman eta jaso, jantzi, etxeko guztientzat jatekoa erosi, presatu, garbitu, menpekotasunen bat dute-netaz arduratu... gaur egun gauzak aldatzen badoaz ere, tradizioz emakumeek egin dituzte horrelako lanak.

## Zaintza-lanak banatzea

Aurten Udalak eta Eibarko Emakumeen Mahaia prestatu duten programan zaintzak eta zaintzaileen figurak pisu garrantzitsua dute. Bihar 13.00etarako deitu duten kontzentrazioko lema ikusi besterik ez dugu: 'Zaintzak guztion ardura' irakurri ahal izango da Untzagan zabalduko den pankartan. Izan ere, Eibarren arlo honetan ikerketa zehatzik ez da egin, baina ikerketa zabalagoei begiratuta, etxean edo fami-

lia inguruan egiten den zaintza-lanaren %80 baino gehiago andrazkoek egiten dute eta estatistikei begiratuta, berriz, lan murrizketak eta eszedentziak eskatzen dituztenen %95 emakumeak dira (oro har, ama izan ondoren haurra zaintzeko edo etxeko nagusiren bat atenditu ahal izateko eskatu ohi dituzte horrelakoak). Berdin dio emakumea industria, zerbitzu edo landa eremuan bizi den. Eta familiarik kanpoko zaintza-lan gehienak ere emakumeen eskuetara pasatzen dira, gehienbat lan baldintza eskasetan beharra egin behar izaten duten emakume etorkinen eskuetara.

## Ikastaroa

Zaintza lan horiek gizonezkoen ardura ere badirela gogoratzeko eta aldarrikatzeko hainbat ekitaldi prestatu dute datozen egunotarako, besteak beste martitzenean, martxoak 11, Portaleko areto nagusian 19.00etatik aurrera Arantza Fernández de Garaialdek emango duen hitzaldia. Bizkaiko Emakumeen Asanbladako Zaintzak Plataformako kidearen hitzaldia ...eta kitto! Euskara Elkartearekin elkarlanean antolatu dute. Horrez gain, ohikoa denez Antzerki Jardunaldietako antolatzaileekin elkarlanean antzezlan biren emankizuna antolatu dute: 'Gorda' eta 'Cruzadas Cotidianas'. Eta apirilaren 3tik ekainaren 12ra, berriz, Emakumeentzako Jabetze-Eskolako Pepa Bojó psikologoak '¿Quién cuida a la cuidadora?' izenburuko ikastaroa emango du Andretxean, eguenetan. Ordutegi bi izango da aukeran: 15.00etatik 17.00etara edo 17.30etatik 19.30etara. Izen-ematea martxoaren 17tik 31ra arte egin daiteke (Pegoran).



## PROGRAMAZIOA

**Martxoak 8**, 13.00etan Untzagan. **Kontzentrazioa**, 'Zaintzak Guztion Ardura' lemapean.

**Martxoak 11**, 19.00etan Portalean (areto nagusian). **Hitzaldia**: 'Zaintzak Guztion Ardura', Arantza Fernández de Garaialderekin.

**Martxoak 13**, 20.30etan Hezkuntza Esparruan. 'Gorda' antzezlan.

**Martxoak 14**, 19.00etan eta 22.00etan Hezkuntza Esparruan. 'Gorda' antzezlan.

**Martxoak 31**, 20.30etan Coliseo antzokian. 'Cruzadas cotidianas' antzezlan.

**Apirilaren 3tik ekainaren 12ra**, eguenero, 15.00etatik 17.00etara edo 17.30etatik 19.30etara. **Ikastaroa**: '¿Quién cuida a la cuidadora?', Pepa Bojó-rekin.

**Martxotik azarora**, emakumeenganako tratu txarren kontrako **iragarkia** KTBn.



# “Arazo ekonomiko handiak dituzte Eibarko alargunek”

Aditze-k, bitartekaritza eta zerbitzu juridikoen zentruak, Eibarko alargunei buruzko ikerketa egin du Altzoaren, Eibarko alargunen elkartearen, ekimenez. Herriko alargunek bizi duten egoera eta dauzkaten arazoak aztertu dituzte Mireia Arginzoniz ermuarrak eta Oihana Medina eibartarrak, zortzi hilabetetan.



OIHANA MEDINA, NOSOTRAS, VIUDAS DE EIBAR, IKERKETAREN EGILEA

**- Nondik dator ‘Nosotras, viudas de Eibar’ ikerketa egiteko asmoa?**

2004ean beste ikerketa bat egin zen, horrela, Altzoarekin, Eibarko alargunen elkartearekin, kontaktuan jarri ginen eta eurei buruzko datu demografikoen ikerketa bat egin genuen. Beraz, ‘Nosotras, viudas de Eibar’ lanaren bigarren atala izango litzateke. Lehenengo ikerketan datu espezifikoak, sozio-demografikoak hartu ditugu. Bigarrenean, berriz, datu sozio-demografikoez gain, datu kualitatibo batzuk ere bai. Adibidez, elkarrizketak, talde eztabaidak alargunekin eta abar, orduan, eurek alargun bizi hori nola eramaten duten jaso dugu.

**- Nolako izan da ikerketa prozesua?**

Alargun askorekin kontaktuan ipini gara eta, azkenean, talde eztabaidarako lau talde egin ditugu; sei bakar-kako elkarrizketa pertsonal, euren alargun bizitza gaur egunera arte nolako izan den azalduz; eta berrehun galdeketa egin ditugu. Lan guzti hau egiten zortzi bat hilabete egon gara.

**- Zenbat alargun dago Eibarren?**

Gutxi gora behera 2.000 dira Eibarren dauden alargunak. Bestalde, Eibarko alargun kopurua, bai gizon, bai emakumeena, biztanleria guztiaren %8,4a da (382 gizon alargun daude).

**- Zergatik ez dituzte gizon alargunak ikertu?**

Altzoa emakume alargunen elkartearekin, emakumeak bakarrik aztertu ditugu, beste barik. Datu sozio-demografikoak hartzerako orduan gizonak eta emakumeak bai alderatu ditugu, baina ikerketa guztiak emakumeen inguruan dihardu.

**- Zelntzuk dira ikerketatik atera dituzten datu esanguratsuenak?**

Ikerketa lau atal edo bloketan egin da: gaixotasunak, etxebizitza (ekipamendua eta guzti hori), ekonomia (alargunetan puntu garrantzitsuenetarikoa dena) eta aisialdia. Guri datu esanguratsu bat geratu zaigu buruan. Izan ere, alargunen %27k ez dauka aisialdirako denborarik euren ilobak zaintzen daudelako.

**- Zelntzuk dira alargunen arazo nagusienak?**

Gehien bat ekonomia. Etxebizitza ordainduta daukate, euren da, nahiz eta askotan seme-alabekin elkarbanatuta herentzia kontuak direla-eta. Hala ere, arazo handiak dituzte ekonomia aldetik, bai berogailua ordaintzeko, bai bainuontzia dutxa bihurtzeko eta abar.

**- Eta nola konpondu daitezke arazo horiek?**

Diru gehiago inbertitzen. **- Konpontzeko ahaleginak egiten dira?**

**“Alargunen %27ak ez dauka aisialdirako denborarik, batez ere euren ilobak zaintzen daudelako”**

Bai, Eibarko alargunen elkartearekin, Altzoa, konfederazioan eta talde askotan dago sartuta, eta gainera, ehunetik gora alargun dago talde honetan. Beraz, indarra daukate, baina gehiago izan beharko lukete. Batuta egonda gehiago bultzatzen dute, horrela, poliki-poliki badoaz gauzak lortzen.

**- Zelntzuk izan dira azterketa honetan ikusi dituzten emaitza positiboak?**

Guretzat alderdi positibo bat da Altzoa elkartearekin existitzea eta honek beste alargunak laguntzen dituela. Horrela, pertsona bat bakarrik sentitzen denean nora

joan eta zer egin aholkatzen die. Gainera, bildu egiten dira eta beste gauza askotan laguntza eskaintzen zaie alargunei. Elkarkidetasun hori bultzatzea oso positiboa da.

**- Zeln izango litzateke, balego, alargunentzako egoera ideala?**

Egoera ideala izango litzateke ekonomia aldetik asetuta egotea, behintzat bizitzeko dirua edukitzea, gaur egun pentsioen batzuetan 400 eurotako delako hilean. Bestalde, euren denbora edukitzea ere garrantzitsua izango litzateke, baina diruaren kontua ondo badoa beste guztia ondo ipintzen da. Adibidez etxebizitza, berogailu egokiekin, gaur egun askotan ez dagoelako ia berogailurik; bainuontzia dutxengaitik aldatuz, bainuontzietan arriskuak dituztelako. Hala ere, egoera ideala izateko bakoitzaren egoera pertsonala hartu beharko litzateke kontuan.

*Bixar itxiko dittu atiak Erremintta-Makiñaren bienalaren 25. ediziñuak Barakaldoko Bilbao Exhibition Centre-n (BEC). Ediziño historikua izan da aurtengua: 788 standetan banatuta, 36 herrialdetako 1.761 enpresak makiña zein teknologixa arluetako azken barrikuntza eta garapenak erakutsi dittue, Europa maillan sektoriaren inguruan antolatzen diran ferixen artian inportantienetakua dan honetan. BEC-en egitten diran azoka gehixenak edozeiñendako zabalik egon ohi dira, baiña honetan bakarrik profesionalak hartzen dabe parte, bai euren produktuak erakusten eta saltzen, baita euren interesantiak izan leikiazenen gaiñeko informaziñua batzen be. Gure herriko 12 enpresatako ordezkariak be hantxe egon dira, makiña-erreminttan puntaren puntan daguazela erakusten.*



## Eibarko enpresak Erremintta-Makiñaren Bienalian

**H**annover-eko EMO eta Milaneko BIMUren atzetik, European Erremintta-Makiñaren inguruan egitten diran azoketan hirugarren inportantiena da BEC-en bixar itxiko dana. Sektoreko marka inportantienak ordezkaturata dagoz egunotan Barakaldoko sei pabilloiak betetzen dittuen erakustokixetan. Munduko bost kontinentietatik etorritakua dagoz (%57 enpresa atzerritarak dira) BEC-en. Italia, Alemania eta Suitza sektoreko liderak izanda, aspaldidanik hartzen dabe parte bienalian. Taiwan, Txina, Txekia, India eta Errusia bezalako merkatu barrixak agertziarekin batera, negoziarako aukerak biderkatu egin dira sektoreko profesionalendako.

Historikoki Eibarko enpresa mundua amagintzari lotuta egon bada be, azken urtitan erremintta-makiñaren sektoriak gorakada nabarmena euki dau Debabarrenian, batez be Elgoibarren eta Eibarko industriak be bat egin dau sasoi barrixekin, sektoriaren aldeko apustua eginda. Aurtengo bienalian Eibarko dozena bat enpresak hartu dau parte, batzuk produktu barrixekin eta beste batzuk, barriz, aurreko ediziñuetan aurkeztutako produktuen bersiño

barrixekin: Acha Herramientas de Precisión S.L., AGME Industrias, Crucelegui Hnos. S.A., Danffor Sist. Int. Ind. S.L., Delteco S.A., Divimek S.L. (Meca), Egasca S.A., Tekniker, Industrias Mail S.A., Izalan S.L., Metronic S.A. eta Neurtek S.A. enpresako ordezkariak euren produktuak ezagutzera emoteko eta bezero barrixak egitteko aprobeixau dittue honek egunak.

### **Punta-puntako produktuak**

Eibartik bienalera eruandakuen artian, Tekniker fundaziñuak presentautakua deigarriak egin jakoz bateri baiño gehixagori: industria-robotika, prestaziño haundiko elektronika eta fabrikaziñorako teknologixa



aurreratua, hiru esparru horretako produktuak batu dittue Teknikerrekuak euren standean. Proposamenen artian deigarriena robotika eta ikusmen-artifiziala batzen dittuan txokua izan da: joko modura planteatuta, Tekniker-IK4k robotika autonomua garatzeko dakan ahalmena erakutsi nahi izan dau aurtengo azokan: jendiak porteriak moduko batera pelotia botatzeko aukeria euki dau. Atia zaintzen daben robotak, barriz, sensore eta bestelakueri esker, atezain modura jokutzen dau, ia pelotia guztiak geratuta. Botatuko pelotia jasotzen, barriz, beste robot batek dihardu. Jokuak sinpliarene itxuria emonda be, sektoreko teknologiarik aurreratuenetan egindako lanaren emaitza da. Teknikerrek berak azaltzen daben moduan, "Españia instalatutako robotak dittuan 7. herrialdia da mundu maillan eta arlo horretak 60 taldetik gora dihardu ikertzen, baiña banaketa eta instalaziñotik haratago doian industriarik ez dago".

### **Arlo guztiendako soluziñuak**

Horrez gain, industria-kontrolerako elektronikari begira, hardware-plataforma hibridua aurkeztu dabe. Horri esker sistema benetan konplejuak ezarri leikez, bes-



tiak beste han ikusgai daken lebitaziño-magnetiko bidezko sistemak. Bestalde, ultrasoiñuak eta laserrak mekanikako teknologixa tradizionalekin konbinatuta, oiñ arte mekanizatzeko oso gaxkak ziran materialak eta tamaiñendako aukera barrixak presentatzen dituzte.

Eibarko enpresen produktuen eskapariari begira, sektoreko arlo gehixenendako soluziñoak dagoz: neurtzeko tresnak, aukera zabala prentsetan, mekanizatzeko erremintak, moztekuak, soldatzekuak, markatzekuak, tornuak, kalidadiaren kontrolerako aplikaziño informatikuak, barautzak... sektoriak bihar dittuanetako asko, azken batian.

#### Hazten dolan sektoria

Azokia zenbat jende bisitatzen daben ikusita, produktuen merkaua zabaltzeko eskapari edarra da BEC egunotan: 57.300 profesionalak emon dabe izena

azokia ikustera juteko eta bisita kopuruak aurten oiñ arteko marka guztiak hautsiko dittuala diñue antolatzaillak. Profesionalak ez eze, estadu guztitik 7.000 ikaslek bisitatu dabe azokia. Espaiñiako erremintamakiña fabrikatzaillien alkartiak emondako datuen arabera, sektoreko enpresen %92 batzen da azokan. Sektoriak oin momentuan hazten dihardu azokako arduradunen berbetan: 2007xan erremintamakiñaren produkziñoa 1.050 millioi eurokoa izan zan Espaiña maillan, %7'3ko hazkundia izan eban eta ordura arteko urterik onena (2001eko 990 millioiak) erraz gainditu eban. Esportaziñoak %10'3 hazi ziran 2007xan, 615 millioi eurara ailegatu arte (produkziño osuaren %58'6). Esportaziño gehixenak Alemania, Italia, Frantzia, Txina, Mexiko, India, Portugal, AEB, Erresuma Batua eta Poloniara jua ziran. 2008rako sektoriak hazten jarraitzia espero dabe, baiña mailla apalago batian.

# 25 BIEMH

## Eibarko enpresak 25 BIEMH-n

ACHA Herramientas de Precisión S.L.

AGME Industrias.

CRUCELEGUI Hnos. S.A.

DANFFOR Sist. Int. Ind. S.L.

DELTECO S.A.

DIVIMEK S.L. (Meca)

EGASCA S.A.

TEKNIKER

Industrias MAIL S.A.

IZALAN S.L.

METRONIC S.A.

NEURTEK S.A.

**EGOITZA NAGUSIA**  
Bidebarrieta 20 - behea

**FUNERARIA MUGICA**

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

- Tanatorioa eta Errausketa labearreko (Sigma poligonoan).
- Partikular, mutua eta aseguru etxeei zerbitzuak
- Koroak - Eskelak - Urteurreneko eskelak
- Euskal Herri osoko ospitaleetan hartzen zaitugu
- Nazio eta Nazioarteko trasladoak

**Mugica Ehorzketa**  
Funeuskadi taldea

**TELEFONOA (24 ORDU)**  
**943 201 951**



ISEKO MENTXU

2008ko martxoaren 1ean hila

**BETI GURE BIHOTZETAN**

Mila esker azken agurra ematen izan zinetenoi

Etxekoak

Kasualitate hutsez jakin zuen hirukote honek Baqué etxeak azukre-poltsetan marrazkiak egiteko lehiaketa abian jarri zuela. Lanak entregatzeko ia ez zen denborarik geratzen, baina ez zuten soilik aurkeztea lortu, lehiaketa irabazi baitzuten. 12 urte azpikoen lehiaketan beste eibartar bat ere izan zen irabazlea, Danel Errasti. Zorionak denoi.

**- Lehenik eta behin, zorlonak.**

(Amaia, Mikel eta Joseba) Eskerrik asko, benetan.

**- Nola animatu zineten lehiaketan parte hartzera?**

(J) Kasualitate hutsez. Hitzordu batera ordua baino bost minutu lehenago iritsi eta denbora pasatzeko taberna batean sartu ginen kafesne bat hartzeko. Azukre poltsak ikustean izan genuen lehiaketaren berri, epea amaitzeko hiru egunen faltan.

**- Nondik etorri zitzaizuen inspirazioa?**

(M) Kafe mota guztiak paper batean idaztea bururatu zitzaigun eta, ondoren, bakoitzari umore ukitutako marrazki bat eman genion. Barre ugari egin genuen marrazkiak egiten gindoazen heinean.

**- Nola banatu zenuten lana?**

(J) Hirurok mamitu dugu lana, hasieratik bukaerara. Elkarrekin dugun bulegoan bildu eta ideiarri bueltak ematen jardun genuen.

**- Zergatik uste duzue irabazi duzuela?**

(A) Gehienbat, guk uste, eskuz eginak direlako, eta tirada edo kolekzio oso bat garatu dugulako. Lehiaketara aurkeztutako gehienek, 850 bat partaidek, marrazki bakarra eta ordenagailuz egina proposatu zuten.

**- Eta irabaztea espero zenuten?**

(M) Egia esan ez, zaila izaten baita. Egindako behararekin oso gustura gelditu ginen, hori bai, marrazten ondo pasatzeaz gain. Gehien betetzen gaituena zera da, hiru ordutan egin genuela dena, bezperan gainean, eta honen nolabaiteko fruituak jaso izana.

**- Horrelako beste lehiaketarik irabazi duzue?**

(M) Ez, aurrenekoa da hau. Baina gustuko izan dugu bizitakoa eta beste batzuetara aurkezteko irrika piztuarazi digu.



# “Marrazki guztiak hiru ordutan egin genituen”

Hori bai, etxebizitza eta eraikinen mundua albo batera utzi gabe.

**- 12 urte azpiko sarla beste elbatar batek jaso du, Danel Errastik. Marrazkiari ezinhobeak gara elbatarrak?**

(J) Egia esan, kasualitate itzela eta pozgarria izan da, lehiaketa irekia baitzen nahi zuen ororentzako. Esan beharra dago, dena dela, Amaia gasteiztarra dela.

**- Zelan izan da jaso duzuen sarla?**

(A) Danelek Wii kontsola bat jaso zuen eta guk ordenagailua. Gehien asetzen gaituena, ostera, zera da, hurrengo hilabeteetan Danelen eta gu hirurok marrazkiak Baqué kafea hartzen den Euskal Herriko toki oron ikustea eta jendeak gustuko izatea.

**- Arkitektura enpresa bateko bazkideak zarete hirurak. Lehiaketa hau irabazteak zuen lanean lagunduko zaituztela uste duzue?**

(M) Printzipioz ez, ez du zertan baldintzatu. Hori bai, azukre poltsetan bulegoaren izena agertzeak mesede galanta egiten digu eta eskertzen da asko.

**- Zelan da egindako marrazkietatik gustukoena?**

(A) Horretan hirurak gaude ados. Kafe gaztarekin, amerikarra eta bikoitza dira gure ustez politenak. Pena

itzela izan da, baina Baqué etxeak marrazki bi ez dizkigu argitaratu, kafe gaztarekin eta kafe amerikarra. Irudia zaintzearen egin dute. Ulertzen dugu, baina pena galanta da, jende askok esan baitigu marrazki bi horiek guztiz borobilak zirela.

**- Lehiaketa euskeraz edota gazteleraz aurkeztu beharra zegoen?**


(M) Guk era bietara aurkeztu ditugu marrazki guztiak; euskeraz, senak eskatuta eta gazteleraz, ostera, ahalik eta kopuru gehienari helarazteko. Baqué etxeak guk bidalitako 28 marrazkietatik 20 argitaratu ditu, erdi eta erdi eginez, euskera eta gaztelera tartekatuz. Esan beharra dago, euskerazkoen itzulpenak ez direla gureak, guk bizkaieraz bidali baikekituen, Baqué bizkaitarra izateagaitik. Ez gaude oso konforme kafe osoa (café completo) eta kafe ebakia (café cortado) itzulpenekin, baina beno... ez du ardura, gutxienekoa da.

**- Kafea, nola duzue gustukoena?**

(A) Mikel eta Josebak kafesnea hartzen dute normalean, nik, ostera, kafe hutsa hartu ohi dut. Bulegoan sarri hartzen dugu, ohitura polita da, eutsi beharreakoa, kafea hartu, solasean egin... ideia onenak horrelako momentuetan sortzen dira ia beti, gutxien saiatzen zarenean.

**- Baqué?**

(J) Bai, noski, nola ez. Eta hemendik aurrera are eta gehiago. Gainera, Eibartik gertuen duguna da, tokatzen zaigu!



**Martxoak 7, barixakua**

NARRUZKO ZEZEN

Antzezleak: Ruben Gallardo, Belen Fernández  
Zuzendaritza: A.C. Alfares*Mandíbula afilada*

Narruzko Zezen Hezkuntza Esparrutik sortutako Antzerki Taldeak, 38 urte betetzeaz gain, 700dik gora taldekide izan ditu. Horietatik Madrilen euren formazioarekin jarraitzen duten bi dira



20.30

IRAUPENA: 70'


**Martxoaren 7tik  
14rainoko lanak**

20.00

IRAUPENA: 80'

**Martxoak 8, zapatua**

TALLER DE TEATRO DE PINTO

Antzezleak: Jose Luis Olmedo,  
Yolanda García...  
Zuzendaritza: Miguel Ferrari*Artaud,  
rien de rien*Berrogeiko hamarkadako lehen urteetan garatutako istorioa, naziek hartutako Pariseko putetxe batean gertatutakoa.  
Neska judutar bati ematen diote bertan babesia eta hau

20.30

IRAUPENA: 90'

**Martxoak 10, astelehena**

ESCUELA DE TEATRO BULULÚ

Antzezleak: Sergio Torrico, María Vigil...  
Zuzendaritza: Paco Obregón*Cartas de amor  
a Stalin*


Idazle handienetako batek idatzitako amodiozko triangelu arraroa, antzez jolas zoragarri bihurtuta. Funtzio hau eskolako ikaste lanaren zati bat bezala hasi zuten, ondoren, ikasle-ohi bihurtu zirenean, arretaz prestatu eta taulara-

**Martxoak 12, eguztena**

TXALO ETA SOROIZ PRODUKZIOA

Antzezlea: Jose Ramon Soroiz  
Zuzendaritza: Xicu Masó*Sommer Jaunaren  
Istoria*

Lan estreinatu berria, orain hiru urte katalanez sortutako bertsioaren ondorioa. Funtzio honetan antzezleak etenik gabe erregistroz aldatzen jardun behar du. Umorea dago, hausnarke-ta sakon uneekin, eta eskusoinuaren doi-



20.30

IRAUPENA: 80'

**Martxak 11, martizena**

21.30

IRAUPENA: 105'

Aktoreak:

Carmelo Gómez,  
Eduardo Noriega,  
Eduard Fernández,  
Natalia Verbeke,  
Najwa Nimri  
Zuzendaritza:  
Marcelo Piñeyro

Enpresa multinazional bateko goi mailako lanpostu baterako zazpi hautagai aurkezten dira. Esparru itxi batean, hautagaien lehiakortasunak eta zalan-tzak



20.30

IRAUPENA: 100'

**Martxak 14, barixakua**19.00 eta 22.00  
IRAUPENA: 100'

Ikuskizun paregabe baten aurrean gaude, lan hau hiru denboraldiz Madrilko Alcázar antzokian egon baita eta hainbat bira egin baititu, oraingoan azkenetarikoa Eibarren emateko. Umorea eta haus-

**Martxak 13, eguna**

TRASGO PRODUCCIONES

Antzezleak: Luis Merlo,  
Teté Delgado, Alicia Martínez,  
Iñaki Miramón  
Zuzendaritza: Tamzin Townsend*Gorda*

# OSASUN

## Dentistak

T. Anitua 16, behea  
Tel. 943 20 73 57



**AMAIA**  
HORTZ KLINIKA

**ARAT** Hortz Klinika

Hortz-osasuneko profesional taldea zure zerbitzura



Hortz, impaktu eta hainbat beste kausak...  
Buztutako zentrua...

ERREHABILITAZIOA, 4. OZK. Tel. 943 20 10 51

... 15 urte eibartarren irribarra pizten



**Bista Eder**  
ERREHABILITAZIOA eta HORTZ KLINIKA

Bista Eder, 19 - behea  
Tel. 943 70 00 82  
943 20 84 75

- ✓ Inplanteak
- ✓ Ortodontzia
- ✓ Zuritzea
- ✓ Hortz-estetika

grupo innova dental

**Pedro Etxeberria Gisasola DENTISTA**

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara  
**EGUNERO**

Calbeton 19 - 3. ezk. Tfnoa: 943 20 72 17

**IRAZABAL** Hortz-Klinika

J. Irazabal, J. Etxaniz eta S. Sierra DOKTOREAK  
ZERBITZUAK RPS 04/02  
Ortodontzia - Protesiak - Inplanteak  
Hortz-Estetika - Haurrentzako Tratamendua



ABANTAILAK  
- DESKONTU BEREZIAK:  
Mutua eta Aseguruak, enpresak...  
- IMQ

J. Etxeberria, 12 - 1. esk.  
Tel. 943 208552

**BEGOÑA IZAGIRRE MENDIKUTE DENTISTA**

Untzaga 5 - 4. .... 943 70 23 85

**EGUNERO**

## Dentistak

**UNTZAGA**  
hortz-klinika

egunero

Untzaga, 2 - 1. Eskuma  
Tfnoa. 943 70 25 92

## Dietetika

Nutrizio eta Dietetika Zerbitzua



Aurora Cid

Larregizko pisua eta obesitatea  
Urmeen obesitatea  
Nutrizio-berreziketa  
Dieta pertsonalizatuak

Kontsulta astearte eta ostiralean  
Ordua hartzeko: 647 823 971  
San Agustina, 2-4  
Bategoak 1 Lokala

## Errehabilitazioa

**CRF AMOSTEGI**  
ERREHABILITAZIOA



- \* Fisioterapia / Errekuperaketa funtzionala
- \* Logopedia
- \* Inkontinentzia urinarioak
- \* Kirol medikuntza
- \* Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)  
Tfnoa. 943 20 34 46 Tfnoa. 943 74 33 74

*Patronato Eibarres*

**Errehabilitazioa eta Fisioterapia**

ZENTRUKO SENDAGILIA: Ibarra doktorea

Urkizu 9 - behean  
EGUNERO (08.00 - 19.30)

Tfnoak. - 943 12 12 80 eta 943 12 03 58  
Faxa - 943 12 03 58

## Fisioterapia

FISIOTERAPIA  
OSTEOPATIA  
MASAJE TERAPEUTIKOA



**C.F. Errasti**  
705 Koleg. zkia.

Zuloagatarren, 7  
Tel. 605 71 49 88 / 943 70 15 61

OSKAR LOPEZ DE GUEREÑU  
18 Kolegiatu zbkia.




**FISIOTERAPIA GUEREÑU**

EIBARKO TXIKITO, 12  
BEHEA ESKUMA  
TEL. ETA FAXA:  
943 12 14 80

FISIOTERAPIA  
ENEKO MAILAGARAI  
901 kolegiatu zkia.

San Agustín, 2-4 - M lokala  
Tel. 622 14 58 58

Manu Sánchez FISIOTERAPEUTA



- fisioterapia
- osteopatia
- errehabilitazioa

Juan Gisasola, 14  
telefonoa: 943 12 70 78

**MUGI FISIOTERAPIA**



Eider Mugica Aristondo  
669 735 925

Egigurentarren, 18

## Kirol medikuntza

KIROL MEDIKUNTZA



**ndartu**


ERREHABILITAZIO ETA KONTSULTA ZENTRUA

- Odol analisiak
- Elektrotapia
- Fisioterapia
- Urgentziak
- Estortzu probak
- 3. adinekoen mantenimendua
- Kontsulta medikoak
- Errekonozimendu medikoak
- Masaje terapeutikoa
- Kirol masajeak

ERA GUZTITAKO MUTUA ETA ASEGURUEKIN KONTZERTATUA

Diputazio 8-10 48260 ERMUA • Tel. 943 17 21 12 - 943 17 21 16

Hemen zure tokia izan nahi baduzu  
deitu 943-206776 telefonora



# GGDA

## Okulistak

**Oftalmologoak**  
Centro de Oftalmología Avanzada

- Jose Alberdi Alberdi

**OKULISTAK**

EGUNERO ARRATSALDEZ

San Juan 11 - solairueta  
Tfnoa: 943 20 19 82

**Clínica Oftalmológica RECALDE**  
Oftalmología Clínica

Plaza Barria, 2 - 2º  
Tfnoa: 943 201 844  
www.clinicarecalde.com

## Ortopedia

**ARRATE OR-  
TOPEDIA**

ORTOPEDIA TEKNIKARI TITULATUA

Oin unitatea ordenagailu bitartez  
Tailer teknikoak  
Kirol medikuntza  
Laguntza teknikoak

Zuloagatarren, 7  
Tel./Faxa: 943 70 06 31  
ortopedia@ortopediarrate.com  
www.ortopediarrate.com  
OSAKIDETZA eta LAGUN AROrekin egiten dugu lan

## Osteopatak

**lasaituz**  
1991 TERAPIA

**OSTEOPATIA  
KIROMASAJEA  
REFLEXOLOGIA**

Iñaki Azpitarte  
ebkez ebeko zerbitzua  
**659107023**  
Zezenbide, 1 - behea

## Podologoak

- Kiropodia, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak

**ELENA  
AIZPUN  
PODOLOGOA**  
124 kolegiatu zenbakia

943 12 14 93  
T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 2 - 1.

BIDEBARRIETA 48  
EIBAR  
943 203050

ERDIKO KALE 54  
ARRASATE  
943 799746

**PODOLOGOA**  
Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 zenb. kolegiatua)  
Rosarito Rodriguez (125 zenb. kolegiatua)  
Amagoia Zubizarreta (122 zenb. kolegiatua)

**PODOLOGOA**

Maidor  
Lopez  
Etxebarria

Arragueta 2 Bis-B, Behea C  
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.

**PODOLOGO  
T. ORTOPEDICO**

**Iñaki Rivero Zabaleta**

Calbeton, 4 - 2.  
(Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41

## Psikologoak

**Ana Oiarzun**

- PSIKOLOGIA
- SEXOLOGIA
- BITARTEKARITZA LANAK (bikotea, familia...)

Blas Etxebarria 2 - behea  
Telf. 943 20 08 20    Mobil. 635 74 62 50

**AROR**  
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA

----- (Ume eta helduendako) -----

**Ana Artamendi eta Beatriz Ortueta**

- Afasiak
- Dislexiak
- Disfoniak
- Hizmoteltasuna
- Dislaliak
- Eskola arazoak
- Degluzio atipikoak

T. Etxebarria 10 - 6. ezk. (EIBAR)    Tel. 943 20 27 15  
Artekalea 30 - 2. B (DURANGO)    Tel. 94 681 90 79

**UME ETA HELDUENDAKO  
PSIKOLOGIA  
KABINETEA**

ARRATE GARITAONANDIA

- ESTRESA
- ANTSIETATEA
- DEPRESIOA
- ERLAJAZIOA
- FOBIAK
- ALZHEIMER-TERAPIA
- IKASTEKO TEKNIKAK
- UMEEN ARAZOAK
- AUTOESTIMA
- MEMORIA LANKETA

AURRERA EDIFIZIOA    943 20 22 66  
Urtzaile 1, 1. Eskuma    646 233 182

Haur eta Helduentzako  
**PSIKOLOGIA - PSIKOTERAPIA**  
RPS: 313/98

Oscar Mondragon Lili  
Yolanda Cuartero  
Mikel Diez Oregi

**ORDUTEGIA:** 10.00 - 12.00  
16.00 - 20.00

Bista Eder 6 - 1. ezk.    943 70 26 62

# teen-ajeak



*Ricardo Martin  
Narruzko Zezen  
antzerki taldekoa da.  
Piska bat alboratu badu  
ere antzerki mundua,  
ahal den heinean bere  
laguntza eskaintzen die  
Narruzko Zezenekoei.*

## “Antzerkiaren alde teknikoa dut gustokoen”

### - Nola sartu zinen antzerkigintzaren munduan?

Betidanik gustatu zait. Batxilergoa Uni Hezkuntza Esparruan egin nuen eta Narruzko Zezen ezagutu. Eibarko antzerki jardunaldietara joateko ohitura ere banuen. Horrela, Unibertsitatean karrera egiten hasi nintzenean, Narruzkon zeudenak ezagutu nituen eta antzerkigintza munduan hasi nintzen. Hori 18 urte nituenean, orain dela hamar.

### - Zertan dharduzu orain?

Donostian nago eta albo batera laga dut piska bat Narruzko Zezen. Hala ere, ahal den neurrian lagundu egiten

diet, gehienbat jardunaldietan. Txarteldegian egoten naiz, jendea bere lekuan esertzen laguntzen dut, argiztapenean nabil...

### - Zer duzu nahiago, antzerkia edo alde teknikoa?

Alde teknikoa nahiago dut: muntaia, eszenografia eta abar. Urteekin somatzen duzu zer duzun gustokoen. Hala ere, antzerkia ere gustatzen zait.

### - Zer da, zuretzat, Narruzko Zezen antzerki taldea?

Eskertzen dudan zerbait. Bizitzaren ikuspuntu berria eman dit eta pertsona moduan hezitzen lagundu.

# “Eibarko Aste

Sanjuanetarako hiru hilabete eta erdi geratzen dira oraindik. Batzuentzat denbora asko da hori, beste batzuentzat, ordea, ez da hainbeste. Giro Alaia Suptezeko Talde Eibartarra (GASTE), adibidez, lanean ari da herriko jai hauei begira. Egia esan, iazko Sanjuanak amaitu eta berehala hasi ziren 2008koak prestatzen.

Joan den astean Batzar Orokorra egin zuten GASTEkoek. Bilera hori, Josu Mendikute taldeko kideetako baten esanetan, “elkartea funtzionatzen hasteko pausua besterik ez zen izan”. Sanandresetatik hona elkartean ez da ia aktibitatearik izan eta, horrela, batzar honetan Sanjuanetarako ildo nagusiak adostu zituzten GASTEkoek.



## HOROSKOPOA

### ARIES

Arazoak eta amorrua barnean gorde baino, hobe duzu kontatzea. Hartu lagun bat, familiakide bat edo bikotea, eta azaldu euri buruan zer darabilzun bueltak. Gordez gero, egunen batean lehertu egingo duzu!

### TAURUS

Fruta gehiago jan beharko zenuke. Fruituek dituzten osagaien falta handia daukazu eta, horrela jarraituz gero, gero eta makalago sentituko zara. Gutxienez, laranja-zuku bat egunero... ez da asko eskatzea ere!

### GEMINI

Gutxi batzuk biziko dira zu baino hobeto, baina gutxi dira zu bezain beste kezkatzen direnak. Ez zara alferrentzia, baina ez pentsatu lan mordo egiten duzunik ere. Ez zaitez izan hain kezkatia, besteak kokoteraino jarriko dituzu-eta.

### CANCER

Zure odol berekoei asko laguntzen diezu, beti euren alboan zaudete... baina eurak? Laguntza hori bueltatzen dizute? Ez duzu trukean egiten, baina tira, ez dago txarto zuk ere zerbait jasotzea. Esan egin behar diezu!

### LEO

Aspaldi buruan daukazu zerbait beteko duzu aste honetan. Gauzak horrela dira: batzuetan betetzen dira eta beste batzuetan ez, ametsak amets. Horrela, itxaropena azken momentura arte inoiz ez galtzen ikasiko duzu.

### VIRGO

Sentitzen dut, Virgo maitea, baina astroek diotenaren arabera ez duzu oso aste zorionsua pasatuko. Gauza bat edo beste dela, haserre eta amorruekin igaroko dituzu hurrengo egunak. Edozein jarririko zaizu ondoan!

### LIBRA

Zure beharretan ipintzen duzun arreta eta lanagatik zorianak jasoko dituzu zure gaineratik, behar horretan behintzat, dagoen pertsona baten partetik. Zure lana txukuna denaren seinale. Zorionak, beraz.

### SCORPIUS

Sartu eskua poltsikoetan. Ez dago ezer, ezta? Nola egongo da ba, dena xahutzen baduzu? Diruak agertu bezain laister egiten du alde zure poltsikoetatik. Gehiago kontrolatu beharko zenuke konsumismo basati hori.

### SAGITTARIUS

Zure bizitzak filme bat egiteko balioko du. Denetarik pasatzen zaizu; gauza onak eta txarrak, denori bezala. Baina, beno, filme horretan zu izango zinateke protagonista. Eta, nork daki! Agian, Oskar irabaziko zenuke.

### CAPRICORNIUS

Lasai, Capricornius maitea. Dimekan dena amaituko da. Edo hasi? Batek ez daki non dagoen hasiera eta non amaiera, balego behintzat. Hau da demokraziaren jaia, denok irabazten duten jaia. Hori diote behintzat.

### AQUARIUS

Amaitzean daude antzerki jardunaldiak. Pena, ezta? Gustokoa duzu antzerkia, normala da. Beste urtebete itxaron beharko duzu. Itxaroteko prest, ezta? Hala ere, urtean zehar badaude beste saio batzuk gehiago, informa zaitez!

### PISCIS

Juerga gehiegi gustatzen zaizu. Bai, Piscis, martxan ibiltzea, jaiak, dantza, hori da gustokoen duzun gauza. Oso ondo dago, zuk jakingo duzu zer nahi duzun, baina domeka horiek pasatzea ez diot inori gomendatzen!



# Haundixaren bila

## Goitibehera lehiaketa

GASTEK Sanjuanetarako egiten duen proposamen garrantzitsuena 'Eibarko Aste Haundixaren' sorrera da. Izan ere, elkarteak Sanjuanen aurreko asteburutik (ekainaren 20, 21 eta 22tik), Sanpedroetara arte (ekainaren 27, 28 eta 29ra arte) luzatu nahi ditu jaiak. Horrela, Sanjuan jaiak duten ohiko egitura galdu eta iraultza bat biziko lukete herriko jai hauek. Baina GASTERen proposamenen artean ez dago hau bakarrik, beste berritasun batzuk gehitu nahi dizkie eta Sanjuanei.

GASTEkoek orain dela 30 urte Eibarren ohitura handia zuen lehiaketa bat berreskuratu nahi dute: goitibeheren lehiaketa. Hiru hamarkada pasatu dira Arrateko bidetik behera goitibeherak jaisten zirenetik eta, orain, GASTEK ohitura hori berreskuratu nahi du. Horretarako, elkarte honetako kideek beste herrietan egiten diren goitibehera jaitzieretako hainbat bideo ikusi dituzte, eta Mutrikun izan ziren bertakoak nola egin eta antolatzen ziren begira. Bestalde, beste herri batzuetako antolatzaileekin harremanetan daudela ere adierazi du Josu Mendikutek.



GASTEko partaidiak aurreko barixakuan egin zuten batzarra eta bertan Sanjuanetarako proposamenak aztertu.

## Enbolatuak eta jolasak

Ohikoak diren enbolatu eta jolasak egun ezberdinetan egitea ere proposatzen du GASTEK. Harrera ona duten ekintza bi dira horiek eta elkartekoen proposamenaren arabera, "zezenplazaraino joango den kalejira izango dute biek". Era berean, 'Kaxkajo eguna' ospatzea ere proposamenen barruan azaltzen da. Horrela, Sanjuanetako pertsonaiak edo... protagonismoa hartuko luke jaietan.

Beste proposamen batzuen artean, GASTEko kideak Gasteizko blusa koadrila batekin jaia ari dira prestatzen. 'Los alegrios' da Gasteizko koadrila horren izena, GASTEkoek

Ustekabe fanfariaren bitartez ezagutu zutena. Horrez gain, danborradan parte hartzeko asmoa ere agertu du GASTEK, horrela, Mendikutereren esanetan, "aspaldidanik gabiltza kontu hori tanteatzen komisiokoekin".

GASTEK Sanjuanei bultzada bat emateko ekimen honetan iaz izan zuten laguntza baino gehiago beharko dutela azpimarratzen du. Horrela, harremanetan daude hainbat elkarte eta pertsonekin aurkeztutako proposamenak aurrera eraman ahal izateko. Hala ere, Udalaren laguntza ezinbestekoa dela uste dute, hori indartu ezean zaila izango delako aurretik aipatutako guztia burutzea.



Urte berri on

Denbora dezente daramat gai bati bueltak ematen; berdinaren arteko biolentzia, hain xuxen ere. Aurrekoan Ermuan gertatutakoak ekarri dit berriro burura gai konplexu hori. Ez naiz "bulling"-aren inguruan hasiko; nire asmoa bestelakoa da. Zer gertatzen zaie gaur egungo gazteei holako "gauzak" egiteko? galderari erantzunak bilatzen saiatuko naiz.

Hasteko, gazte gehienei gertakizun horri buruz iritzia eskatuta, erabateko desadostasuna adieraziko dutela ziur nago. Gutxiengo batek ditu holako portaerak.

Parentesi hori eginda, askotan portaera horiek adierazten dutena gizarte egitura baten barruan daudela esaten dugu: pobrezia, familia deseginak, drogak, ... baina azken azterketak ez dute hori argitaratzen. Arazoak hor aurkitu ditzaizkegu zenbait kasutan, baina badira baita bestelako zergatiak aztertzen dihardutenak, besteak beste:

- Besteen pentsamenduak, sentimenduak, emozioak edota iritzia errespetatzeko trebetasunak murriztuta daudela pentsa dezakegu. Enpatia falta.
- Edozein ezberdintasun toleratzeko gaitasun eza.
- Portaeren erantzukizuna ez dago euren barnean. Edozerk justifikatu dezake egindako kaltea.
- Zer dagoen ondo eta zer gaizki ezberdintzeko arazoak.
- ...

Jarraitu nezakeen, baina lekurik faltan nago horren inguruan buruan ditudan ideia guztiak idazteko.

Biolentziak biolentzia dakar: hori bai esaldia. Baina kontraesana bihurtu da: hori jakinda ere, gero eta biolentzia gehiago sumatzen dugu gure gizartearen.

**Nerea Zuazua**  
(PSIKOLOGOA)

## Uniko proiektuen aurkezpena



**Aurreko astean Uni Elbar-Ermua BHI Ikastetxeko Lanbide Heziketako Zikloetako ikasleek euren lan proiektuak aurkeztu zituzten.** Administrazio eta Finantzak zikloko bigarren mailako ikasle batzuren aurkezpenean ateratako irudiak dituzue aldameneko hauek.

## Arakistain eta Jaio, primerako bikotea auto zirkuitoan

**A**itor Arakistain Eibarko auto gidariak Espainiako Kopan hartuko du parte aurten Zirkuitoko Erresistentzia modalitatean, Txus Jaio gidari bizkaitar handiarekin MKR Events taldea osatuz. 300cv-ko Seat Leon Supercopa bat gidatuko dute, guztira sei probatan banatuta dagoen txapelketan: Chesten hartuko dute parte martxoan (8/9ko asteburuan), Jaraman apirilean (5/6koan), Cartagenan maiatzean (24/25ekoan), Albaceten ekainean (14/15ekoan), Montmelón irailean (6/7koan) eta Xerezen urrian



Arakistain eta Jaio Espainiako Kopara eramango duten autoarekin, Zumaian egindako aurkezpenean.

(11/12koan), hau da, hilero den Kopak (abuztuan ez da proba bat du jokoan izango izango lasterketarik).

Azken Arrateko Igoerako irabazleak eta Markina-Xemeingo txapelkunak aurreko astean aurkeztu zituzten Zumaian 2008rako egitasmoak. Rallye mundutik zirkuitoetara jauzi egitea erabaki dute oraingoan eta, horretarako, erabiliko duten Seat Leon Supercopa 300cv inguruko potentziakoa da, aurreko trakzioarekin eta bolanteko aldaketa sekuentzialarekin; azken finean, faktura berrikoa eta azken berezitasunak dituen prototipoa izango da Arakistain-Jaio bikotearena. Maila handiko bikotea



### Natalia de Dios judoka nagusi Eibar Hirian

**K**alamua judo taldeko ordezkariak proiektzio onenaren saria irabazi zuen zapatuan Ipurua kiroldegian jokatutako XIII. Eibar Hiria nazioarteko torneoan. Paris, Beaucau-Tarnos, Lour-

des, Aragoi, Errioxa eta Gipuzkoako 45 neska izan ziren lehiaketan parte hartzen. Hilaren 15ean, bestalde, infantil mailako torneoa izango dute jokoan Kalamuako ordezkariak Kantabrian.

### Kenciren eta Mondainen garaipenak areto-foballean

**K**encik 7-4 irabazi zion Plaza Berriri Gipuzkoako 2. mailako ligako partiduan, Garridoren hiru golekin. Jubeniletan, bestalde, Relojos Mondainek 0-5 irabazi zuen sailkapeneko goi aldean dagoen Euskaldunaren zelaian. Eta kadeteetan, azkenik, Debabarrenak launa berdindu zuen Oñatin, Aloña Mendirekin. Bihar goizean jokatuko dute Mondainek (Ipuruan, 12.15etan) eta Debabarrenak (Unibertsitate Laboralean, 10.30etan).

## Udaberri pelota Torneoa azken fasera gerturatuz

**A**stelena frontoian jokatutako jaialdian, Zubizarreta-Unamunzaga Klub Deportiboko jubencil mailako bikoteak bere multzoko 1. postua zuen jokoan eta, Mendizabal-Egiguren usurbildarrei 22-18 irabaziz, torneoaren finalerdietarako txartela eskuratu zuen. Bestalde, Karmona-Agirrebeña senior mailako bikoteak 22-10 irabazi zuen Loiolan eta, horrela, bere multzoko 3. postua bereganatu zuen; orain eibartarrek final-laurdenak jokatuko dituzte, partidu bakarrera.


Euskal Ligako buruz-buruko finalerdia zegoen partiduan, Bengoetxea eibartarrek ez zuen bere egunik onena izan eta lau tantutan geratu zen Erauzkin lemoarraren aurka Astelenan jokatutako neurketan. Eta Deba Arroko Torneoan, Deportiboko Etxaniz eta Egaña, bikain jokatuz, nagusi izan ziren, 22-7 irabaziz Aretxabaletako ordezkariari. Gaur, 19.00etan hasita, Leturiaga-González gure herriko kadete mailako bikoteak partidua jokatuko du Armeria Eskolako frontoian Donostiako Antiguoko ordezkarien aurka.

## Arrateko gazteenak selekzioara

**A**rrate eskubaloi taldeko jokalariek gazteenek Euskadiko eta Gipuzkoako selekzioen deiak jaso dituzte. Horrela, Maialen Insaustik eta Ander Iriartek Euskadiko selekzioarekin

dute zita martxoaren 19an Lekarozen eta Maialen bera, Miren Bengoa eta Ane Ros Gipuzkoakoarekin izango dira domekan.

Asobal Ligako taldeari dagokionez, zapatuan Teucrori 34-28 irabazita, bigarren itzuliko lehengo garaipena eskuratu zuen. Emaizta horrekin, sailkapeneko 7. postuari eusten dio Debreren taldeak eta irabazi dezakeen partidua jokatuko du bihar Algecirasen, 19.30etan hasita, azken postuetatik irtezeko asmoa duen talde baten aurka.



## Bihar amaituko dira Multikiroletako rugbi jardunaldiak



**A**lebin mailako azken rugbi jardunaldia jokatuko da bihar goizean Unben, modu horretan azken lau asteotan bizi izan diren jardunaldiei amaiera emateko. Finalak jokatzeaz gain, urtero egiten den legez, trofeoak eta kamisetak banatuko dira; eta gerturaten diren gurasoek ere ondo merezitako salda eta txorizoa dastatzeko aukera izango dute. Partiduak 10.00etan hasiko dira, jaialdia 13.00a inguruan amaituko da, eta edozein igo daiteke giro bikainean ospatzen den

jaialdi horretaz disfrutatzen. Antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkie Gipuzkoako Rugbi Federazioari eta Tekniker-i, batetik trofeoak eman eta besteak kamisetak babesteagatik; eta, aldi berean, jardunaldi guzti horietan lagundu duten jokalaria, guraso, patronato eta abarri. Rugbia praktikatu nahi duten gaztetxo guztientzat, dena dela, biharkoa ez da azken eguna izango: martitzenetan eta barixakuetan, 17.45etatik 19.00etara, Rugbi Eskolak martxan jarraituko baitu.

## Emakumeen Bira Eibarren amaituko da

**D**ebabarrenako txirindulariek errepideko denboraldia hasi duten honetan, garrantziko berri bi jaso ditugu azken egunotan, biak ere nesken taldearekin lotutakoak. Horrela, iazko esperientzia arrakastatsuz baliatuz, oraingoan ere Emakumeen Birak gure herria bisitatuko du eta, ez hori bakarrik, amaitu ere gurean amaituko baita: itzuli horretako 4. eta azken etapa, ekainaren 15ean jokatuko dena, Eibarren hasi eta amaitu egingo da, Eibarko Klub Deportiboaren antolakuntzarekin.

Horrez aparte, Debabarrenako nesken taldeak Grande Boucle Feminine Internazionalen parte hartzeko gonbidapena jaso du. Maila handiko lasterketa hori Emakumeen Bira amaitu eta hurrengo astean jokatuko da, hasi ekainaren 17an eta 22an amaitzeko.



Iazko Emakumeen Birako etapa amaiera Eibarren.

Bestalde, nesken taldekoek azken asteburuan duatloian, mountain-bikean eta Errenterian jubencil mailako mutilekin parte hartu duten bitartean, mutilen taldeak David Beldak irabazitako Aiztondo Klasikoan jardun zuen.

## Titin-Laskurain berriro Astelenan

**P**elota profesionaleko binakako txapelketako finalerdietako beste partidu bat jokatuko da domeka arratsaldean "Katedralean", aurreko domekan moduan oraingoan ere Titin errioxarra eta Laskurain sorluzetarra aurrez-aurre. Aspeko bikoteak Asegarceko Bengoetxea VI.ak eta Patxi Ruizek (azken hau zalantza da, min hartuta baitabil) osatutakoari egingo dio aurre. Hori izango da jaialdiko partidu nagusia eta, aurretik, Euzki eta Goñi III.ak Capellan eta Zubietarekin neurtuko dituzte indarrak; hirugarren eta azkene-

koan, bestalde, Berasaluze IX.a - Arizmendi eta Larralde - Galarza VI.a bikoteen lehia izango da.

## Usobiagaren dokumentala saritua

**U**r Sakonetako Bakardadea" Patxi Usobiagak gaur egun ematen diharduen proiektzioak onenaren saria jaso du Bartzelonako Visual Sound-en. Mallorcako labarretan grabatutako lan horretan, Patxi Usobiaga, Irati Anda eta Psicobloc-eko aurkitzaileetako bat, Miguel Riera hain zuzen, dira protagonista. Bideografik produktora berriak, [www.katuoinak.tv](http://www.katuoinak.tv) web orria daramanak, ekoiztu eta editatu du dokumentala.



Haritz Laskurain.

*Garitancos*

1957an sortua

GOZOTEGIA

- ETXERA banatzen dugu
- Ezkontza eta despedidetarako TARTAK

Julian Etxeberria, 6  
Tel. 943 20 24 51

**KATU KALE**  
TABERNA BIDEBARRIETA, 1

## Udaberri Saria Eibarko denboraldia hasteko



Junior mailako Udaberri Saria XXX. edizioa beteko du biharkoan, oraingoan -domekan hauteskondeak direla-eta- domekatik zapatura pasatu den laster-

ketan. Ibilbidea ohikoa izango da eta guztira 80 kilometro eta erdi izango ditu: Eibartik irten eta Elgoibarrentz joko dute txirrindulariek, gero Mendaro, Deba, Itziarko gaina, Arroa, Iraeta, Aizarnazabal, Muniosoroko gurutzebidea, Oikia, Txikierdiko gurutzebidea, Itziarko gaina eta, Debatik berriro bueltan Eibarreraino.

Helmuga San Andres parrokiaren inguruan kokatuko da, Bidebarrieta kalea hasten den puntuan, eta azken metroak -Bar Loiolako gurutzebidetik hasita, hau da, Barrenaren amaieratik- kontrako norabidean egingo dituzte txirrindulariek, Karmen, Urkizu eta Bidebarrietatik. Amaiera 17.30ak ingururako dago iragarrita, lasterketa hasi (15.30etan) eta handik ordu bira gutxi gorabehera.

## Eibar-Cadiz, bihar 18.30etan

Eibar Foball Taldeak partidua garrantzitsua jokatuko du bihar arratsaldean Ipuruan, mailari eusteko borroka horretan dabilen taldeak gero eta gertuago baitituzte gorri-urdinek. Cadizek ere asmo handiekin hasi zuen denboraldia, baina une honetan sailkapeneko erdialdean dago. Partidu horretarako, atzeko aldean hegalean jokatzen duten Txiki eta Raulen baja izango ditu Eibarrek. Hurrengo jardunaldiko Granada 74 eta Eibar-en

arteko partidua ere zapatuan jokatuko da, Motrilen eta 18.00etan hasita.

Bestalde, Etxabek belauenean duen lesioa hobetzen ez denez, artroskopia egingo diote datorren eguenean, belauna aztertu eta garbitzeko. Berri onak ere badaude taldean: kadete mailan jokatzen duen Aitor Landarraita-jarengik Javier Garmendia Gipuzkoako kadete selekzio-ko entrenatzailearen deia jaso baitu Akitania-Gipuzkoa partidua jokatzeko.

## Espainiako titulu bi Romarate igerilariarentzat

Titulu bi eta beste hainbat azpigitulu eskuratu ditu Ander Romarate Urbat-Urkotronik taldeko igerilariak Egokitutako Igeriketaren Espainiako txapelketetan. Romaratek garaipena lortu zuen 100 eta 400 metro libreko lasterketan eta bigarren postuan amaitu zuen modalitate horretako 50 metrokoan eta bizkar erako 100ekoan. Tximeleta modalitatean, bestalde, 5. postuan amaitu zuen 50 metroko proban.

### Gazteen postu bikainak

Gipuzkoako ligako neguko denboraldian, bestalde, alebin eta benjamin mailakoen 5. jardunaldian, podiuma bisitatu zuten Urbateko hainbat igerilariak. Alebinetan, Nora Varelak 800 me-



tro libretan irabazitako proban, Patricia Sáez 3.a izan zen. Eta benjaminetan, Mikel Zabalza garaile izan zen 200 metro libretan eta Ane López 3.a distantzia bereko proban; bestalde, bular erako 50ekoan, Iratxe Moya 3. sailkatu zen eta Leire Pérez 4.ean.

## 22 minuturekin nahikoa izan zuen Bihurrik

Ermesto Ezpeletak bere bigarren Guinness marka ezarri zuen zapatuan, esku bakarrarekin kanako enborra moztuta. Amaieran, gainera, "nekatu ere ez" zela egin esan zuen Eibarko aikolariak, 800 aizkorakada inguru eman eta gero eskumako eskuarekin. 21 minutu eta 22 segundo bakarrik behar izan zituen Bihurrik bi metro eta erdiko pago enborra mozteko Berri-zen emandako ikuskizunean; horretarako, bi kilo inguruko aizkora erabili zuen, metro bateko kir-

tenekoa. Erritmo bizia jarri zuen hasieratik eibartarrak eta Herri Kiroletako Euskal Herriko Federazioko ordezkariak bere marka egiaztatu besterik ez zuten egin behar izan. Hirurehun bat ikusle inguratu zen kiroldegira.



## Eibartarra bihar Ermuko frontoian Euskal Herriko pala txapelketako finalean



Bihar, arratsaldeko 17.30etan hasita, Euskal Herriko pala txapelketaren finalak izango dira jokoan Ermuko Arizmendi pelotalekuan. Hasteko, 2. mailako finala eta, ondoren, Ohorezko mailakoa; azken horretan, Petralanda eta Peral Gasteizeko Adurza taldeko ordezkariak eta Juan-

ma eta Arrarte Ermuko Pelotazaleak-ekoak neurtuko dituzte indarrak. Juanma Ferreiro aurrelaria Eibarkoa da eta 3. aldiz ahaleginguduko da txapela janzten, aurretik jokatutako beste final bietan galtzaile izan baitzen. Aukera polita, beraz, palako partidua bikaina ikusteko, sarrera doanekoa izango baita.

## Sostoaren kontzertua bihar Karmelitetan

**D**atorren urtean 25 urte beteko dituen Sostoa abesbatzak kontzertua emango du bihar, 19.45etatik aurrera Karmengo Amaren elizan. Kontzertua hiru zatitan banatu dute: lehenengo zatian, laster ospatuko den As-te Santua gogoan, eliza-giroko abestiak, XV. mendekoak eta beltzen espiritualak abestuko dituzte; bigarren zatian, berriz, udaberriaren ome-nez Haydn, Mendelssohn eta Mozarten piezak eskainiko dituzte; eta hirugarren zatian, Emakume Langileen Nazioarteko Eguna zapatuan bertan ospatzen denez, abesbatzeko emakumeek



AMAIJA JAIO

'Anderia' eta 'Gorarik' abestuko dituzte, Isabel Laspiurrek pianoarekin lagunduta eta Mari Kar-men Etxebarriak zuzenduta.

## Emakumeen artelanak Topalekuan

**M**artxoaren 8aren in-guruan beste urte batzuetan egin ohi dutenari jarraituta, Arrate Kultur Elkartekoek herriko emakumeen artelanez osatutako erakusketa prestatu dute. Gaur arratsaldean inauguratuko den erakusketan Eibarko 40 bat emakumek egindako era guztietako artelanak batu dituzte. Aurten, gainera, Musika Eskolak hartuko du parte gaur arratsaldeko inaugurazioan eta erakusketa



AMAIJA JAIO

martxan egongo den beste egunetan ere. Martxoaren 16ra arte egongo da zabalik erakusketa, 12.00etatik 14.00etara

eta 19.00etatik 21.00etara zapatu, domeka eta jai egunetan eta 19.00etatik 21.00etara, berriz, astelehenetik barixakura.

## Santiago Mateosen koadroak Debegesan

**M**artxoaren 21era arte Santiago Mateos ermua-rraren margolanak ikusteko aukera egongo da Debegesan (Azitaingo industrialdean). Artista autodidaktak batez ere paisaiak margotzen ditu, sakontasun eta perspektibari arreta berezia eskainita. Bes-

teak beste Markina, Saturran, Gaztela-Mantxako eta Gaztela-Leongo paisaiak ikus daitezke Debegesako egoitzan ikusgai dauden koadroetan. Lanen bat ikusi eta erosi nahi izanez gero, horretarako aukera badago, 943-173524 telefono zenbakira deituta.



## Laburrak

### ATE IREKIAK ETA SARIAK

Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskolan ate irekien jardunaldia egingo dute bihar, zapatua, 10.00etatik aurrera. Eskolan ematen diren titulazioen inguruko informazioa emateaz gain, Zientzia eta Teknologia erakustazoka egongo da zabalik. 12.30etatik aurrera, berriz, ProiektEibar I. Lehiaketako sariak banatuko zaizkie proiektu zientifiko-teknologikoetan nagusitu diren lanen egileei.

### GEMINIS OPERAZIOA

Apirilaren 6an Eibar eta inguruko herrietako bikiak elkartuko dira: 11.15etan Untzagan batu eta 12.00etan meza egingo da San Andres elizan. Taldeko argazkia atera eta, txikiteoan ibili eta gero, 14.30etan izango da bazkaria. Joan nahi duenak 40 euro sartu beharko ditu Euskadiko Kutxan eta Kutxan horretarako zabalik dauden kontu korronteetako batean. Informazio gehiagorako 943530193 edo 608207867 telefonotara deitu.

### IKASTEN

Debarrenako Esperientzia Eskolako Ikasleen Elkartekoek hainbat ekitaldi prestatu dute datozen egunotarako: bihar Kaleetan Kantuz taldekoak 19.00etan irtengo dira abes-tera, Untzagatik abiatuta. Astelehen eta eguenean, berriz, 16.00etatik aurrera Portalean egongo dira, kontserba eta mermelada ikastaroan. Martitzenean, 10.00etatik 12.00etara, Antonio Cancelo Mon-dragon Taldeko zuzendari-ohiak hitzaldia emango du CEPAN (Isasi, 39) eta eguenean, berriz, Fernando Fernán Gómezen 'Ninette y un señor de Murcia' pelikula emango dute Hezkuntza Esparruan.

## AKONDIA



Albaitari Zentroa

Julen Arano / M<sup>o</sup> Jesus Blanco

Bitto Sarasketa, 12  
☎ 943 12 74 15

## MUGICA iturgintza

- GASA ETA ITURGINTZA
- ALTZARI ETA OSAGARRIAK
- BAINUONTZIAK eta HIDROMASAJERAKO KABINAK
- HANSGROHE GRIFERIA
- AIRE EGOKITUA
- ZORU ERRADIATZAILEA



hansgrohe


San Juan 15 - behea  
Tfnoa. 943 201 030 / Faxes. 943 207 224



LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 ☎ 943 20 33 29 EIBAR



### Nun zabizie?

**G**aur, Kezkako gure Hiartekiñ akordauta, barriketan jardun dogu eze, dantzia dala eta ez dala, biaje politxik ein dogula dantzarixok, gero! Bat apartatzen hasi eta, esate baterako, zera, Veneziaiko plaza zabal eta bertako ubide illunetaraño dantzia dala bitxartian aillegau giñan gu oin dala urte batzuek.

Juan dan astelehenian, eguna aspalditxik izentaut, gure lagun Adriano Brasillera itzuli bihar izan da. Hangotxia da bera, hamen urte t'erdia emon dau lanian, baiña papelik konsegidu ez, bihar eban permissua amaitxu eta holakotxe harrixa suertau jako bizibidiaren erdi-erdixan.

Aurreko asteko eguen gabian bestela, 95 urte edar aldian, Maria Atxa Albizurik be biagian urten dau. Ondiokan Arrateballeko koko-eskian Gorosta azpiko basarrira heldu eta zelako arrankiagaz hartu gintxuan Mariak, bertako amandre bizi-gordñiak. Oin lur gaiñeko karga guztiak albora laga eta libre juan da ha be.

Baiña hasieran ez dogu dana ondo eta osorik azaldu. Gaztiak dira. Asmua lehendik erabixen, eta urtebetekuagaitxik poltsia barik bizimodua aberastia pentsatu dabe Hiartek eta lkerrek: munduari bueltia emotera doiaz. Ezkerrerutz hartu dabe mapan, eta goitxik behe- ra datozela amaitxuko ei dabe Gabonetan... Biagia zozgarrixa da, baiña haruntzago jota, hori erabagixa hartzeko baloriak —behin biagia eiñ ahal izateko modua dakela jakñi eta ondolik— horretxek libertadiorrek bai poztasuna ipintzen dabala bihotz barruetan! Euren oiñ hurrengoko kontuak Bolivia ingurutikuak ziran...

**Oier Araolaza  
Enrike Izagirre**

## Ikastaro eskaintza zabala Markeskuan

**U**dako Euskal Unibertsitateak (UEU) Udalaren laguntzarekin udaberri-rako prestatu dituen ikastaroak aurkeztu zituen atzo Markeskuan. UEUko arduradunen berbetan, *“gure asmoa urte berri honetan eibartarrentzat eta inguruko herrientzat gertuko eta interesgarria den eskaintza egitea da. Hori dela eta, kolore eta gustu guzti- eta egokitutako eskaintza diseinatu dugu”*.

Zortzi ikastaro emango dira

Markeskuan: 'Jendaurreko komunikazioa lantzeko tailerra', 'Haur kantak eta jolasak', 'Informazio uholdea kudeatzen ikasi', 'www berri baten lehen urratsak', 'Itzulpengintza automatikoaren nondik norakoak', 'Hizkuntza Teknologia ikasleen testuak aztertzeko', 'Barreterapia' eta 'Aromaterapia eta Sendabelarrak'. Izena emateko epea zabalik dago eta horretara



rako azken eguna martxoaren 14a izango da. Udalak Eibarren erroldatutako ei

diru-laguntzak emango dizkie: %85eko asistentzia egon dela erakutsiz gero, matrikularen prezioaren erdia bueltatzen du Udalak, horretarako eskaera aurkeztuta. Ikastaro bakoitzaren gaineko informazio guztia kontsultatzeko edo izena emateko [www.ueu.org](http://www.ueu.org) helbidera jo daiteke.

## Bertso-giroa nagusi Kultun



JOSE LUIS IRIGOIEN



LEIRE ITURBE

**Eguenean eta zapatuan Kultun izandako bertso jaialdi bietan puntako bertsolari gazteak izan ziren protagonista.**

**A**rrate Kultur Elkar- teak bertsolari- zari- tarte berezia egin dio martxoaren hasierako programazioan: aurreko asteko eguenean Xabi Paia eta Uxue Alberdi bertsolari gazteek saio ederra eskaini zuten Kultu tabernan bertan, gai librean eta giro paregabe- an. Asteburuan, ber- ritz, jende ugari batu zuen Kulturaleko lehenengo so- lairuan egindako bertso bazkarian. Eguenetan Kul-

tun elkartzen diren Hanka- motxak bertso eskolako ki- deek prestatutako gai- e- jarraituta Maialen Lujanbio eta Amets Arzallus bertso- larien bazkalostea ederto animatu zuten. Eta bertso- giroa zabaltzeko asmoare- kin, martxoa amaitu bitarte- an iazko saioan Jose Luis Iri- goien argazkilariak Nahikari Gabilondo eta Amaia Agi- rre bertsolari- e- ateratako ar- gazkien erakusketa egongo da ikusgai Kultu tabernan.

## Euskal zeramika ezagutzeko ikastaroa

**E**uskal Herriko zeramika eta bere teknikak ezagutzera emateko ikastaroa emango da apirilaren Portalean, Zeramika Udal Eskolan. 16 urtetik gorako edozeinek eman dezake izena, baina Eibarren erroldatutakoek lehentasuna izango dute. 8 saio izango dira guztira, apirilaren 1ean hasi eta 24ra arte, martitzen eta eguenean, odutegi bitan: talde batek 17.00etatik 19.00etara hartuko ditu klaseak eta besteak, berriz, 19.00etatik 21.00etara. Ikastaroaren prezioa 35 euroko da eta izena emateko Pegorara joan behar da, martxoaren 10etik 28ra.



AMAIA JAO



## Shakti Olaizolaren margoak Portalean

Gaur arratsaldean, 19.00etan zabalduko da Portaleko erakusketa aretoan Shakti Olaizola gazte azpeltiarraren margo erakusketa. Martxoaren 30era arte ikusgai egongo den erakusketan giza-irudia oinarri duten koadroak bildu ditu Arte Ederretako ikasleak. Erakusketa ohiko ordutegian egongo da zabalik: martitzenetik domekara, 18.30etatik 20.30etara.



LEIRE ITURBE

## Karta-joko txapelketak Beheko-Tokian

Otsalleko azken egunetan karta eta mahal-joko txapelketak jokatu dituzte Beheko-Tokia Karmen kaleko jubilatutxuean: tutean, igel-tokan, musean, briskan eta 'seietara' jokatzeko aukera izan dute jubilatutxueko bazkideek eta joko bakoitzeko onenentzat sariak egon dira. Gainera, modalitate bakoitzeko txapel-dunek aurrerago jokatu diren herri-mailako txapelketetan jokatzeko aukera izango dute.



LEIRE ITURBE

## Argazkilarien lanak tabernetan

Martxoaren 31ra arte Klub Deportiboko argazki taldeko hainbat kideren lanak herriko hiru tabernetan ikusgai egongo dira: Gaizka Bilbaoren lanak Depor tabernan ikus daitezke, Bakarne Elejalde eta Virginia Arakistainenak, berriz, Portalea tabernan eta El Ambigú tabernan, berriz, Fernando Oregi argazkilariak Papuan ateratako irudiak daude ikusgai.

*Taula gainean bakarrik egoteari gustua hartu dio Jose Ramon Soroizek. Telebistako lehendakaria izandakoak 'Sommer jaunaren istorioa' aurkeztuko du Coliseoan. Umore eta hausnarketa sakoneko antzezlan, Soroizen maila handiko interpretazioarekin osatua.*



## JOSE RAMON SOROIZ, AKTOREA: "Monologoa egitea erronka da beti"

### - Zela da Sommer jauna?

Sommer jauna pertsona bezei-ilun bat da. Herri batean bizi zen eta obrako pertsonaiak gaztetan han ezagutu zuen. Jendeak ez zekien ezer pertsona honi buruz, soilik Sommer izena zuela eta egunean 12 edo 13 ordutan oinez zebilela. Sommerri buruz ez dakigu ia ezer, baina obran berari buruz asko hitz egiten da, mutikoari gaztetan galdera ugari sortu zizkion eta asko markatu zion. Galdera guzti horien erantzunak obran azaltzen dira.

### - Antzezlanean publikoa eta zu bakarrik zaudete, inor ez gehiago. Ez dizu zorabiatzen?

Bai, zorabio izugarria, monologo guztiak sortzen dute zorabio hori. Lehenagotik horrelako lan bi egin ditut, 'Umekeriak' eta 'Ozeanoko pianista', baina zorabio hori hor dago. Ordu bat eta hoge minutu nago bakarrik eta, gainera, eszenografia ere ez da bestelakoa, besaulki eta aulki bat, besterik ez. Hala ere, erronka bat da, aktore batentzat monologo batekin ausartzea erronka bat da. Monologoak aldaketa gehiago ditu aktore batentzat, ez da gai bat hartu eta hori kontatzea. Momentu askotatik pasatzen da, tristura, barreak, malkoak eta abar. Momentu horiek antzezteko polita da aktore batentzat, ondo ateratzen badira behintzat, eta jendearen arretari ordu eta erdi

horretan eustea lortzen baduzu, ba zoragarria da.

### - Testua ahaztuz gero ez duzu inoren laguntza izango.

Hori bai (barreak). Testu luzea du antzezlanean, baina esperientziak laguntzen du.

### - Hobe bakarrik laguntza txarrekin balno?

Ez, ez. Estilo ezberdinak dira biak. Niri obra hau egitea asko kostatu zait, lan gogorra izan da eta orain esaten dut, agian, monologoak utziko ditudala, gutxienez beste batekin aritzea nahiko nuke (barreak). Monologoa ondo dago, baina nekeza da. Lan gogorra da, baina lortzen duzun gozamenaren gogortasun horren parekoa da.

### - Zenbatgarren aldia da Eibarko antzerki jardunaldietara zatozena?

Ez dakit, baina nire antzezlana gehienekin etorri naizela uste dut. Urtero urtero etorri naiz, uste dut hasi nintzenetik beti etorri izan naizela. Aipatu behar dut, gainera, maila handia dutela Eibarko antzerki jardunaldiek. Hala ere, aurten Coliseoarekin berritasun bat sartu dute, ez dakit nolakoa den, baina esan didate nahiko handia dela. Nire antzezlaren formatoa nahiko txikia da eta Hezkuntza Esparrurako bikaina izango litzateke, baina seguru nago Coliseoan ere ondo egongo dela. Eskerrak Eibarko antzerki jardunaldiak ditugula; bere maila oso handia da eta antolatzen dutenei eskerrak eman behar zaizkie horregaitik.

**telefono jakingarriak**

SOS deiak..... 112  
 Pegora ..... 010  
 Udaletxea ..... 943 70 84 00  
 Portalea ..... 943 70 84 39  
 Udaltzaingoa..... 943 20 15 25  
 Mankomunitatea.... 943 70 07 99  
 Debegesa ..... 943 82 01 10  
 KIUB ..... 943 20 38 43  
 Epaitegia ..... 943 03 34 00  
 Iberdrola..... 901 20 20 20  
 Naturgas..... 902 12 34 56  
 DYA Larrialdia... 943 46 46 22  
 Gurutze Gorria.... 943 22 22 22  
 Mendaro osp..... 943 03 28 00  
 Anbulategia..... 943 03 25 00  
 Torrekua ..... 943 03 26 50  
 Errepideak..... 902 11 20 88  
 Ertzaintza ..... 943 53 17 00  
 Eusko Tren..... 902 54 32 10  
 Pesa ..... 902 10 12 10  
 Taxiak ..... 943 20 30 71  
 ..... 943 20 13 25  
 Alkoholiko Anonimoak ..... 629 14 18 74

**autobus ordutegiak**

EIBAR-DONOSTIA. Egutegia: 07.00, 08.50, 10.30, 13.30 eta 18.30. Laneguna: 08.00, 15.30, eta 20.30. Jaieguna: 09.30 eta 20.30. DONOSTIA-EIBAR. Egutegia: 12.30, 15.00, 17.30, 19.30 eta 20.45. Laneguna: 07.00, 09.30 eta 13.30. EIBAR-BILBO. Laneguna: 06.40etatik 20.40etara ordu. Zapata eta jaieguna: 07.40etatik 21.40etara ordu. BILBO-EIBAR. Laneguna: 06.40etatik 21.40etara ordu. Zapata eta jaieguna: 07.40etatik 21.40etara ordu. EIBAR-GASTEIZ. Egutegia: 06.15, 10.45, 14.45 eta 18.45. Zapata: 06.45, 10.45, 14.45 eta 18.45. Jaieguna: 08.45, 10.45, 14.45, 16.45, 18.45 eta 20.45. GASTEIZ-EIBAR. Egutegia: 08.30, 12.30, 16.30 eta 20.30. Jaieguna: 08.30, 10.30, 12.30, 16.30, 18.30 eta 20.30. EIBAR-IRUÑA. Laneguna: 07.45 eta 13.30. Jaieguna: 07.30 eta 18.00. IRUÑA-EIBAR. Laneguna: 10.45 eta 18.00. Jaieguna: 10.45 eta 21.00. EIBAR-ARRATE. Zapata: 14.15. Domeka eta jaieguna: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. ARRATE-EIBAR. Zapata: 14.45. Domeka eta jaieguna: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30. EIBAR-ELGETA. Laneguna: 13.30 eta 20.20. Domeka eta jaieguna: 12.00 eta 19.00. ELGETA-EIBAR. Laneguna: 14.00 eta 20.50. Domeka eta jaieguna: 12.30 eta 19.30. ERMUA-MENDARO. Astelehenerik ostiralera: 06.20, 07.10, 07.50 (07.50etatik 22.20etara orduerdi). Zapata-Domeka-Jaieguna: 06.50-etik 21.50-era ordu. MENDARO-ERMUA. Laneguna: 06.55etatik 21.55etara orduerdi. Zapata-Domeka-Jaieguna: 07.55-etik 21.55-era ordu.

**tren ordutegiak**

EIBAR-BILBO. Laneguna: 06.13etatik 21.13etara ordu. + 10.35 eta 21.38. BILBO-EIBAR. Laneguna: 05.57etatik 20.57etara ordu. + 09.34 eta 20.18. EIBAR-DURANGO. Egutegia: + 22.18. EIBAR-DONOSTIA. Laneguna: 06.13etatik 20.13etara ordu. + 10.35 eta 21.38. DONOSTIA-EIBAR-ERMUA. Laneguna: 05.47etatik 20.47etara ordu.

**eguraldia**

*Euskal Meteorologia Agentziatik*

**TENPERATURA GORA**

ZAPATU goizean euri apur bat egingo du, baina gero ostarteak zabalzten joango dira, batez ere barnealdean, eta giro eguzkitsua izango dugu. Tenperaturak gora egiten jarraituko du. Elur-kota 1.100-1.200 metro inguruan izango da. DOMEKAN lainoak nagusituko dira, baina ez da euririk espero.

**7 barixakua**

**ANTZERKI JARDUNALDIAK**

20.30.- Mandíbula afilada' (Narruzko Zezen). Hezkuntza Esparruan.

**8 zapatua**

**ATE IREKIAK**

10.00.- Ate Irekien Jardunaldia. Titulazioen inguruko informazioa. Zientzia eta teknologia erakustazoka. 12.30.- ProiektEibar I. Lehiaketako sari-banaketa ekitaldia. Piskolabisa. Joandako guztiei oparia. Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskolan.

**KONTZENTRAZIOA**

13.00.- Martxoak 8. 'Zaintzak guztion ardura.' lemarekin. Untzagan.

**TXIRRINDULARITZA**

15.30.- XXX. Udaberri Saria. XV. Javier Gallastegi Memoriala. Untzagan.

**KALEETAN KANTUZ**

19.00.- Kaleetan Kantuz-en irteera. Urkizun hasita.

**ANTZERKI JARDUNALDIAK**

19.00.- 'Artaud, rien de rien' (Taller de teatro de Pinto, Madril). Hezkuntza Esparruan.

**KONTZERTUA**

19.45.- Sostoa abesbatzaren kontzertua. Karrengo Amaren elizan.

**9 domeka**

**KALEJIRA**

11.00.- Usartza Txistulari Bandaren kalejira, Txirio kale eta Ifar kalen.

**UMEENDAKO ZINEA**

17.00.- Sarrera: 2'80 euro. Amaña Kultur Aretoan.

**10 astelehena**

**IKASTEN**

16.00.- Mermelada eta kontserba tailerra (1. taldea). Portalean.

**ANTZERKI JARDUNALDIAK**

20.30.- 'Cartas de amor a Stalin' (Escuela de Teatro Bululú, Madril). Coliseo Antzokian.

**11 martitzena**

**IKASTEN**

10.00.- Hitzaldia: 'Luces y sombras de la globalización'. Hizlaria: Antonio Cancelo (MCC Taldeko zuzendari-ohia). CEPAN (Isasi, 39).

**HITZALDIA**

19.00.- 'Zaintzak Guztion Ardura'. Hizlaria: Arantza Fernández Garaialde (Bizkaiko Emakumeen Asanblada).

**ANTZERKI JARDUNALDIAK**

21.30.- Antzerkia zine-man. 'El método' (Zuz: Marcelo Piñeyro). Coliseo Antzokian.

**erakusketak**

**Martxoaren 15era arte**

Jose Luis Irigoien-en argazki erakusketa (bertsoak). **Kultun.**

**Martxoaren 16ra arte**

Eibarko Emakumeen artelaren erakusketa **Topalekuan.**

**Martxoaren 21era arte**

Santiago Mateos-en margo erakusketa **Debegesan.**

**Martxoaren 30era arte**

Shakti Olaizola-ren margo erakusketa **Portalean.**

**Martxoaren 31ra arte**

Gaizka Bilbao-ren argazki erakusketa. **Deportiboan.** Fernando Oregi-ren argazki erakusketa. **El Ambigún.** Bakarne Elejalde eta Virginia Arakistain-en argazki erakusketa. **Portalea tabernan.**

**12 eguaztena**

**OLIO-BIRZIKLAKETA**

09.00/13.00.- Etxean erabilitako olio (eta beste hainbat gai) jasotzeko zerbitzua. Untzagan.

**ANTZERKI JARDUNALDIAK**

20.30.- 'Sommer jaunaren istorioa' (Txalo eta Soroz Produksioak, Gipuzkoa). Coliseoan.

**13 eguena**

**IKASTEN**

09.30.- Zinea: 'Ninette y un señor de Murcia' (Zuz: Fernando F. Gómez). Hezkuntza Esparruan.

**ELKARTASUNAREN ASTEA**

10.30.- Elkartasun ospakizuna. La Salle Isasi ikastetxean.

**IKASTEN**

16.00.- Mermelada eta kontserba tailerra (2. taldea). Portalean.

**ANTZERKI JARDUNALDIAK**

20.30.- 'Gorda' (Trasgo Producciones, Madril). Hezkuntza Esparruan.



## ikastaroak

### UEUko Udaberriko

#### Ikastaroak

**Epea: Martxoak 14.**  
Informazioa eta matrikula:  
www.ueu.org edo  
Markeskuan (943821426).

#### Arkeologia ikastaroa

'Las Siete Maravillas de la Antigüedad'  
Noiz: **apirilaren 1etik 10era, martitzen eta eguenetan**, 09.30etatik 12.30etara Unibertsitate Laboralean.  
Matrikula: 21 euro.  
www.kutxasocial.net edo 902540040 telefonoan.

#### Ezinduen zaintzarako ikastaroa

Noiz: **apirilaren 1ean hasita, martitzen eta eguenetan**, 16.00etatik 19.00etara, Elgoibar eta Ermuko merkatu plazetan.  
Norentzat: Landa eremuko emakumeentzat.  
Matrikula: 40 euro.  
Debemenen (943744067)  
**Epea: Martxoak 27.**

#### Zeramika ikastaroa

Noiz: **apirilaren 1etik 24ra, martitzen eta eguenetan**. Orduetegi bi (17.00etatik 19.00etara eta 19.00etatik 21.00etara), Portalean.  
Matrikula: 35 euro. Pegora,  
**Epea: Martxoak 28.**

#### Gurasoak Martxan

'Curso de habilidades para la vida', Hilario Garrudo psikologoarekin.  
Norentzat: 12-16 urteko seme-alabak dituzten guraso edo arduradunentzat.  
Noiz: **Apirilak 17 eta 24 eta maiatzak 6**, 18.00etan Portalean.  
Matrikula: Doan. Pegoran.  
**Epea: Apirilak 11.**

#### TAILERRA

**Menpekotasunari aurre egiteko prebentzio programa**  
**Epea: Martxoak 25.**  
Non: Pegoran.

## diru-laguntzak


#### Hitzarmenak kultura erakundeekin

**Epea: Martxoaren 25era arte.**  
Non: Pegoran.


#### UEU-ko matrikularako

Zenbatekoa: Matrikularen erdia.  
**Epea: Maiatzaren 30era arte.**  
Non: Pegoran.

## denborapasak



Aurkitu hemen 14 PERRETXXIKO MOTA izen.



Aurrekoaren SOLUZIOA

## zinema



### untzaga "10.000"

ZUZENDARIA:  
**Roland Emmerich**  
AKTOREAK:  
**Steven Strait, Camilla Belle, Cliff Curtis...**

Orain 10.000 urte gizakiak eta mamutak ziren nagusi munduan. Ehiztari talde baten ibilaldi luzea hasiko du, desertuan barrena. Era guztietako animaliak izango dituzte aurkari eta zibilizazio galduta aurkituko dute...

## santerak salgai

#### ZINEA

'El Método'. Martxoak 11, 21.30etan Coliseoan.

#### ANTZERKIA

'Golulá' (umeentzat).  
Martxoak 15, 18.00etan Coliseoan.

## laster salgai

#### ZINEA

'7 mesas de billar francés'. Martxoak 18, 21.30etan Coliseoan.

#### ZINEA

'Alpha dog'. Martxoak 25, 21.30etan Coliseoan.

#### ANTZERKIA

'Cruzadas cotidianas'.  
Martxoak 31, 20.30etan Coliseoan.

#### ZINEA

'Fast Food Nation'. Apirilak 1, 21.30etan Coliseoan.

## farmaziak

### 7. barixakua

GOIZEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)  
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

### 8. zapatua

GOIZEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)  
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

### 9. domeka

GOIZEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)  
GAUEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)

### 10. astelehena

GOIZEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)  
GAUEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)

### 11. martitzena

GOIZEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)  
GAUEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)

### 12. eguaztena

GOIZEZ **Urizar** (J. Etxebarria, 7)  
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

### 13. eguena

GOIZEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)  
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

### 14. barixakua

GOIZEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)  
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

## hildakoak

- **Jesusa Trapaga Trapaga**. 2008-II-18.
- **Mariano Mítez-Alcocer Peñalver**. 76 urte. 2008-II-27.
- **Candido Hinojosa Sánchez**. 40 urte. 2008-II-28.
- **Maria Atxa-Albizuri Aldazabal**. 96 urte. 2008-II-28.
- **Joaquin Izaguirre Urteaga**. 91 urte. 2008-II-29.
- **Mª Carmen Etxebarria Elorza**. 82 urte. 2008-III-1.
- **Kontxa Larrañaga Alzela**. 85 urte. 2008-III-4.

## jaiotakoak

- **Nahia Jauregi Cuevas**. 2008-II-22.
- **Ugaitz Segurola Ubera**. 2008-II-26.

## lehiaketak

### XIV. Ipurterre Ipuin Lehiaketa

**Epea: Martxoaren 12ra arte.**  
Informazioa: ...eta kitto!  
Euskara Elkarte.  
943-200918 telefonoa

### II. Industriagintzari buruzko argazki lehiaketa

Gaia: Industriagintza.  
Modalitatea: Euskari digitaal. Epea: **Martxoaren 14ra arte.**  
Informazioa: Armeriako Ikasle Ohien Elkarte.  
943-203146 telefonoa.  
aaa@armeriaeskola.com

### VIII. Eskola-Bideo lehiaketa

**Epea: Martxoaren 30era arte.**  
Informazioa: La Salle Azitain.  
Telefonoa: 945121698.  
lsallengae@planalfa.es

## ETXEBIZITZAK

- Logela hartuko nuke alokairuan. Tel. 646-394857.
- Eibarren pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 679-720405. Jorge.
- Elgoibarko Sigman pisua salgai. 60 m<sup>2</sup>. Logela bi, egongela, sukalde handia, komuna eta balkoia. Berriztua, jantzita eta oso eguzkitsua. Tel. 636-274420.
- Eibar erdialdean pisua hartuko nuke alokairuan. 3 logela eta egongelarekin. Tel. 943-203924.
- Eibarren pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 626-061112.
- Debagoienan edo Debararrenan pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 619-812347.
- Pisua salgai Legarrek dorreetan. 3 logela, egongela, sukalde, komun bi, balkoia eta despentsa. Eguzkitsua eta dena kanpora begira. Tel. 653-733357.

## LOKALAK

- Garajerako plaza alokagai. Eibarko zenitroan. Tel. 600-018668.
- Garaje irekia eta trasteroa salgai. Tel. 607-695054.
- Elgoibarko Olaso poligonoan lokala salgai. 200 m<sup>2</sup>. Bulegoak ipintzeko prestatua. Tel. 639-313293.
- Jatetxea traspasoa jubilazioarengatik. Martxan eta oso egoera onean. Tel. 697-494283.
- Trasteroa erosi edo hartuko nuke alokairuan. Tel. 627-934675.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako **PREZIOAK** honakoak dira: **Etxeak, lokalak, garajeak:** alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. **Autoak:** 10 euro. **Doaneko iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.**

Iragarkiak ipintzeko: **943-200918 (Marisol).**

## SALEROSKETAK

- Jantokirako aintzinako mahai ederra eta aukiak salgai. Tel. 665-729417.
- Autorako irrata salgai. Blaupunkt 300. Autoestore, RDS eta TP-rekin. Aurreintzizko 30 posizioekin. 150 euro. Tel. 943-203204.
- Bizikleta salgai. Karbonozkoa. Goka Greenwich markakoa. 54 tailakoa. Urtebete du. 900 euro. Tel. 610-631842.
- Solarium tolesgarria salgai. Infragorriak eta MP3-arekin. Etxerako. Berria. 950 euro. Tel. 699-623821.
- Bizikleta salgai. Orbea Arin markakoa. Dura-ace taldearekin. 2005ekoa. 1.700 euro. Tel. 656-768944.
- Bikotearentzako kanping-eko koltxone-ta salgai. Erabili gabe. Puzgailua opari. Tel. 653-717875.
- Errepideko bizikleta salgai. Osagarri guztiekin. Behin erabilia. Prezio onean. Tel. 653-717875.
- Mountain-bikea salgai. Orbea Orion markakoa. 24 tailakoa. 7 urtetik aurrera-koendako. Deitu 20.00etatik aurrera. Tel. 943-530746.

## AUTOAK

- Karabana salgai. 7 metrokoa. Kalefakzio eta ur berogailua. Komuna, dutxa eta sukalde osoa. Kanpoan. Mutrikuko Santa Elena kanping-ean. Tel. 652-750361.
- Renault Scenic salgai. Egoera onean eta extra guztiekin. IAT pasatuta. 85.000 km. Tel. 607-230077.

## BESTELAKOAK

- Umeentzako mahai-tota aurkitu zen zapatu gauean San Andres parrokiaren parkean. Urdin kolorekoa. Tel. 679-358806.
- Urrezko pultsera aurkitu da Armagin kalean, Mari Carmen izenarekin. Tel. 943-208089.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko garbiketarako. Tel. 626-865691.
- Neska eskaintzen da edozein lanerako. Tel. 627-713467.
- Neska arduratsua eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 630-006792.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanerako. Tel. 686-265293.
- Sukalde-laguntzailea eta kamarera behar dira. Tel. 943-121262.
- Sukaldaria behar da pintxoak, ogitartekoak eta kazuelitak egiteko. Tel. 610-619421. Rakel.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanerako. Tel. 639-240038.
- Mutila eskaintzen da edozein lanerako. Tel. 680-250527.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanerako. 09.30etatik 16.00ak arte. Tel. 680-250527.
- Emakumea eskaintzen da orduka nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanerako. Tel. 638-233739.
- Escuderia Eibar-ek kolaboratzailea behar du. Bidali kurrikuluma: escuderia\_eibar@hotmail.com
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanerako. Tel. 671-742142.
- Neska eskaintzen da umeak zaindu eta publizitate banaketak egiteko. Tel. 664-651415.
- Mutila eskaintzen da kamarero edo sukaldari laguntzaile moduan. Tel. 666-054698.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanerako. Tel. 686-127137.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanerako. Tel. 646-394857. Celia.
- Emakumea behar da umeak zaindu eta garbiketa lanerako. Deitu 19.00etatik aurrera. Tel. 943-700400.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta etxeko lanerako. Tel. 943-030650.
- Euskal musika rock popo elektronikoa proiekturako teklista behar da. Tendentzia ikusteko: www.myspace.com/nineu-proiektua Tel. 665-732640.
- Ingeleseko klase partikularrik ematen dira. Maila guztietarako. Martitzen eta eguenetan goizez. Tel. 645-728317 edo 943-201294.
- Emakumea eskaintzen da arratsaldez

## LANA

- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko garbiketarako. Tel. 626-865691.
- Neska eskaintzen da edozein lanerako. Tel. 627-713467.
- Neska arduratsua eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanerako. Tel. 686-265293.
- Sukalde-laguntzailea eta kamarera behar dira. Tel. 943-121262.
- Sukaldaria behar da pintxoak, ogitartekoak eta kazuelitak egiteko. Tel. 610-619421. Rakel.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanerako. Tel. 639-240038.
- Mutila eskaintzen da edozein lanerako. Tel. 680-250527.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanerako. 09.30etatik 16.00ak arte. Tel. 680-250527.
- Emakumea eskaintzen da orduka nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanerako. Tel. 638-233739.
- Escuderia Eibar-ek kolaboratzailea behar du. Bidali kurrikuluma: escuderia\_eibar@hotmail.com
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanerako. Tel. 671-742142.
- Neska eskaintzen da umeak zaindu eta publizitate banaketak egiteko. Tel. 664-651415.
- Mutila eskaintzen da kamarero edo sukaldari laguntzaile moduan. Tel. 666-054698.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanerako. Tel. 686-127137.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanerako. Tel. 646-394857. Celia.
- Emakumea behar da umeak zaindu eta garbiketa lanerako. Deitu 19.00etatik aurrera. Tel. 943-700400.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta etxeko lanerako. Tel. 943-030650.
- Euskal musika rock popo elektronikoa proiekturako teklista behar da. Tendentzia ikusteko: www.myspace.com/nineu-proiektua Tel. 665-732640.
- Ingeleseko klase partikularrik ematen dira. Maila guztietarako. Martitzen eta eguenetan goizez. Tel. 645-728317 edo 943-201294.
- Emakumea eskaintzen da arratsaldez

- nagusiak zaindu eta garbiketa lanerako. Tel. 652-715908 edo 943-742201. Araceli.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanerako. Tel. 648-210838.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanerako. Tel. 616-230814.
- Margolari autonomoa behar da. Gutxienez urte biko esperientziarekin. Tel. 690-005800.
- Ileapaintzailea behar da jornada erdirako. Esperientziarekin. Tel. 637-302318.
- 28 urteko mutil arduratsua eskaintzen da edozein lanerako. Tel. 625-917400.
- Emakumea behar da umeak zaindu eta etxeko lanerako. Ordutegia: 08.15-12.15. Tel. 667-656096.
- Neska eskaintzen da arratsaldez umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanerako. Tel. 671-439914.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanerako. Tel. 679-095634 edo 943-530718.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanerako. Tel. 608-376387.
- Neska eskaintzen da nagusiak, gaixoak eta umeak zaindu eta garbiketa lanerako. Tel. 943-200994 edo 617-571210.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanerako, interna edo externa moduan. Tel. 699-813826.
- Emakumea eskaintzen da kamarera lanekin eta umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanerako. Tel. 610-902124.
- Mutila eskaintzen da makinak garbitzeko. Ikasketak eta esperientzia. Tel. 610-902124.
- Neska arduratsua eskaintzen da goizez garbiketa lanerako. Tel. 665-726288.
- Gizona eskaintzen da elektrizista, iturgin eta peoi lanerako. Tel. 605-363960 edo 943-530718.
- Neska eskaintzen da arratsaldez garbiketa lanekin egiteko orduka. Tel. 690-791689.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanerako. Tel. 626-865691.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanerako. Tel. 606-658464.
- Erizain laguntzailea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanerako. Tel. 663-301585.
- Neska eskaintzen da kamarera moduan lan egiteko. Esperientzia. Tel. 663-301585.

# ...eta musu bat zuretako

Zure senide edo lagun bat zorientzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 3 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 6 euro. Argazkia eta testua eguztaz aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, MADDI, zure 4. urtebetetzian. Jarraitu holan, sorgintxo alaia izaten. Etxekuen partez.



Zorionak, IRATI, bixar 10 urte beteko dittuzulako. Martin, Patxi, Leire eta famelixa guztiaren partez.



Zorionak, TXARO Olañeta Aizpitarte, hillaren 13an 43 urte egingo dittuzulako. Guraso, senar eta semieren partez.



ezkerra  
berri  
ezker  
aberri  
*euskal boza Madrilen*



# CENTRO MEDICO EIBAR

## INKORPORAZIO BERRIAK:

- FOTODEPILAZIO UNITATEA, IPL LASERRAREKIN
- FOTOGAZTETZEA
- DOANEKO DIAGNOSTIKOA  
ETA NEURRIKO FINANTZIAZIOA

Unitate berri hau martxan ipini dugula-eta,  
Eibar Osasundegian %10eko deskontua  
eskaintzen dizuegu otsailaren amaierara arte.

Urkizu Pasealekua, 13  
Tlfn. 943.120.200

Klase teoriko  
zein praktikoak  
norberak nahi  
dituenean

Klase teorikoak  
ikusentzunezkoen  
abantailak  
erabilita

Merkantziak  
eta bidaiariak  
garraiatzeko  
nazioarteko  
agentzia ziuertagiriak  
lortzeko ikastaroak

GIDATZEKO  
KARNET  
GUZTIAK

SOLOZABAL  
autoeskolak

HELBIDE BERRIA  
Estaziño kalea, 8

Tel. 943 70 23 84

ETESA



Tfnoa. 943 12 19 73 - Faxoa. 943 12 70 68  
Bidebarriata, 66 - 428 Postakutxa - 20600 EIBAR  
e-mail: [etesa@euskalnet.net](mailto:etesa@euskalnet.net)



ALTZARIK-MULKIAK



BULIGOKAK BANATZEKO MAHPARAK



BULIGOKITAKO INSTALAZIO OSOKA